# ttipi-ttapa

**215.** zenbakia • 1997ko urriak 9 • **XVI.** urtea

**Jone FAGOAGA** *Hamalau urteko ehiztari txapelduna*

## Egunotan Kroaziara joatekoa da Munduko Txapelketan parte hartzera

Gazte lesakar honek hamalau urte bertzerik ez badu ere, berriki Espainiako San Huberto ehiza txapelketan garaile suertatu da. Proba honetan, ehiztari eta zakurraren arteko elkar hartzea neurtzen da. Ez da berak irabazitako sari bakarra, plater tiraketan ere Nafarroako txapel bat bururatu baitu. Bere palmaresa hobetzeko intentzioarekin joanen da urriaren 12tik 18ra Kroaziara. Animo!

☞ 12





**Mikel PETRIRENA: EHNE-Nafarroako lehendakaria**

*«Gehiago produzitzeak ez du baserria errentagarriagoa denik erran nahi»* dio Sunbillako nekazariak. Hori izan da, hain zuzen, Oronozen desintentsifikazioari buruz solasteko bildutako Europako nekazariek atera duten ondorio nagusienetako bat.

☞ 3

**4** Erreportaia: **Bertsolari gazteak plaza bila**

Etxalarren bildu ziren Nafarroako bertsolari gazteak eta han erabakitakoaren berri bildu dugu, bertso eskolak hasteko puntuan dauden honetan.

**6** Iritzia: **Neguko asteburuei begira**

Herri ezberdinetako gazteek zer egiten dute negu parteko asteburuetan?

**TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!




AMAIUR
DONEZTEBEko sarreran © 948.450400
Prezioa
zuk jarri
sukaldea
guk jarriko dizugu


MAVERICK
4x4
Ford
Indartsua, behar
duzuenean
MAVERICK
ZALAIN MOTOR
© 948.631157 - 908.778023
Ubelaidea - BERA
TELLETXEA TAILERRAK
© 948.450667
Leitzako bidea - DONEZTEBE

DATUAK..........

❖ *Mikel Petrirena Sunbillako Altsuperea baserrian sortu zen duela 41 urte eta gaur egun ere bertan bizi da.*

❖ *Nafarroako EHNE sindikatuko arduraduna da azken sei urteotan. Hori dela eta, egunero egiten du Iruñera joan-etorria.*

❖ *Espainiako COAG erakundean ere, exekutibako kidea da, baina azaroan utziko du kargua.*

❖ *Oronozko San Martin Eskolan, Europa osoko 200 ordezkari inguru bildu dira, EHNEk desintentsifikazioari buruz antolatutako topaketetan.*

TESTUA:
AITOR AROZENA

**Mikel PETRIRENA** *Sunbillako nekazaria*

# "Gehiago produzitzeak ez du baserria errentagarriagoa denik erran nahi"

**DESINTENTSIFIKAZIOARI BURUZKO TOPAKETA EGIN DUZUE ORONOZEN. ZERGATIK?**

Inguru batean kokatu behar da. Europatik nekazal politikaren erreforma bat planteatzen ari dira, nekazal produktuen prezioak oraindik gehiago jautsiz eta laguntza zuzenak haundituz. Planteamendu honek, hiru sektoreri eragiten die nagusiki: esnearen prezioa %10 jautsiko da eta behi-haragiarena %30. Hauekin batera zerealak ere jautsiko dira. Arra barnean daraman planteamendua da hau, izan ere, prezio jautsiera honek intentsifikazioa dakar.

**ZER DA, ZEHAZKI, INTENSIFIKAZIOA?**

Gero eta gehiago produzitu beharra, azkeneko urteetan ofizialki beti hori bultzatu da: nekazaritza mantendu ahal izateko haunditu egin behar da behi kopurua.

**ETA, ZUEN USTEZ, BADA BERTZE IRTENBIDERIK?**

Seminario honen ondoriorik garbienetakoa, Europa osoko eta hemengo esperientzia ikusi eta gero zera da, intentsifikazioa ez dela bide bakarra ezta biderik onena ere nekazaritzako lanpostuak edo baserriak mantendu ahal izateko. Adibidez, Nafarroako bi baserriren arteko konparazioa egin da. Batek, behi bakoitzeko urteko 8.390 litro produzitzen ditu eta bertzeak mila gutiago. Gehien produzitzen duen horrek, aziendendako hagitzez janari gehiago erosten du kanpotik eta alimentazio kostoa, litroko 27 pezeta pasatua da eta bigarrenarena 13 pezeta terdikoa. Lehenbiziko baserrian, litroko 12 pezeta garbi bertzerik ez da gelditzen, bigarrenean berriz, ia 24 pezeta. Lehenengo esplotazioa intensifikatua litzateke. Daramagun bide okerraren adibide garbia da, ikuilu haundia, behi aunitz, aunitz erosi... hori da ofizialki laguntzen dena.



«Desintentsifikazioaren bidea, norberaren baliabideak aprobetxatzea da»

Desintensifikazioaren bidea, norberaren baserriko baliabideak aprobetxatzean egon daiteke. Lanpostuak eta baserriak mantentzeko bidea izan daiteke, produkzioa zatikatu, ez esku gutti batzuetan utzi.

**GAUR EGUNGO MERKATUAK, ORDEA, PRODUKTIBISMOA BULTZATZEN DU...**

Bai, noski, baina zergatik? Baserri intentsibo batetik, nekazaria bera baino gehiago bizi dira inguruko guztiak: albaitariak, pentsu etxeak, medikamendu etxeak... Azken finean hori bultzatzen da, kontsumoa. Europa osoan hedatutako sistema hau da, baina bertze bideak jorratu nahi dituen taldeak ere badaude, Normandian, Holandan...

> *"Baserri intentsibo batetik, nekazaria bera baino gehiago bizi dira inguruko guztiak: albaitariak, pentsu etxeak, medikamendu etxeak..."*

***Nafarroako Bertsolari Txapelketako argazkiak ikusiz, alde ederra dago aurtengoa eta duela zazpi-zortzi urteetakoa begiratuz gero. Orduan, Bittor Elizagoien izanen zen gazteena eta, noski, guziak gizonezkoak ziren. Aurtengo finalean, berriz, sei gazte sartu dira, horietatik bi neska. Elizagoien bera zen zaharrena, Kexux Arzallus alde batera utziz gero. Txapelketan nabari da, nolabait, Nafarroan bertsolaritzak jaso duen gaztetze prozesua. Denak ez dira larrosak, ordea. Saio gutti egiten dituzte gazteek txapelketatik kanpo eta bertsolari bezala trebatzeko arazoak dituzte. Nafarroako bertsolaritzaren barnean beraien papera aztertu eta egin beharreko lana zehaztu nahiean Etxalarren bildu dira 15 bat bertsolari gazte, udako azken asteburuan.***

TESTUA: ***AITOR AROZENA***

# Bertsolari gazteek plazak nahi dituzte

Bertso eskoletan arituak dira gazte gehienak, baina eskolarik onena plazan aritzea dela uste dute, patxadan, txapelketak ematen duen urduritasun eta sufrimendurik gabe. Baina, hori zaila da gaur egun. *«Ezagunak diren bertsolariak saio gutti egiten dituzte eta ezagunak ez direnak bat ere ez»* dio Jon Abril bertsolari beratarrak. Horretarako gazteekin zenbait saio antolatu nahi ditu **Zortziko Ttikia** elkarteak eta hori izan zen, hain xuxen, Etxalarko topaketen xedeetako bat. Jon Abrilek errandakoaren arabera, *«bertso eskoletan bapatean bertsoetan hasi direnak, ezagunagoak diren bertsolariekin saioetan aritzeko beharra ikusi dugu. Erakunde ezberdinetatik laguntzak lortu nahi dira. Adin eta estilo ezberdinetako bertsolariak nahasiko ditugu, kartela erakargarriagoa egin eta gazteei plazetan aritzeko aukera emateko».*

## Nor zen Xalto



Bidea urratuz, Bortzirietako Bertso Eskolak gazteek osatutako bortz saio antolatu ditu udazkenerako, herri bakoitzean bat, baina ez dute dena bertsolari gazteen elkartearen esku utzi nahi. Arantzan, adibidez, Gazte Asanbladaren laguntza lortu nahi da antolakera. k. . Iruñerriko institutuetan ere saioak eginak dira, Sakana aldean bi saio eginen



## Zortziko Ttikian ari dira Nafarroako bertsolari gazteak

Neurri haundiagoetan ere trebeak baldin badira ere, *Zortziko Ttikia* aukeratu dute gazteek, bertsoen inguruan dituzten kezkak eztabaidatzeko, hausnartzeko eta plazaratzeko bilgune bezala. Berez, Nafarroako Bertsozale Elkartearen adar bat bada ere, bere estatutu propioak ditu. Duela bost urte sortu zen *Zortziko Ttikia* elkartea, 25 urtez beheitiko bertsolari nafarrak biltzeko eta Xalto Saria antolatzeko helburuarekin. Iaz, ordea, ez zen antolatu eta elkartea bera ere norabide gabetua ibili da azken aldian. Etxalarko jardunaldietako helburuetako bat, Eskolarteko txapelketa eta txapelketa nagusiaren artean zubi lana egiten duen sariketa hau berreskuratzen saiatzea izan da. Bertzenaz, salto haundi xamarra izaten baita bertsolari nerabeendako.

Bertzalde, *Zortziko Ttikia* elkartearen zuzendaritza Batzorde berria ere aukeratu da Etxalarren, lehenbiziko batzarretik aldatu gabe baitzegoen. Lehendakaria Josema Leitza, lehendakariordea Nerea Bruño eta idazkaria Ekintza Landa izanen dira. Iruñerriko jendea aukeratu dute, nahita, funtzionaltasunari begira. Honela, Iruñeko administrazioarekiko harremana errexagoa eta arinagoa izanen dela uste dute Nafarroako bertsolari gazteek.

Andres Narbarte «Xalto» bertsolaria, Goizuetako Moxo baserrian jaio zen, 1927ko azaroaren 20an, baina Txermeneko Bordan eman zuen bizitza osoa, baserrian lan eginez. Soldaduska Afrikan egitea suertatu zizaion, Lazkaotxikirekin batera, hain zuzen, eta elkarrekin hainbat bertso bota omen zuten. Nafarroako txapeldun suertatu zen 1960 eta 1964 urteetan. Bertsolari klasikoa eta eskola gabea genuen goizuetarra eta neurrian trakets xamar ibiltzen bazen ere, aparteko zorroztasuna zuen bere esaldietan. 1971ko urtarrilaren 9an, mendian sasi-larreak erretzen ari zela suak indarra hartu eta bapatean hil zen, atake batek emanda, lagunek menditik behera zeramatela.

Geroztik, bertsolaria ez dutela ahaztu erakutsi dute bere sorterrian. Herriko eskolari bere izena eman diote eta bertsolari gazteendako txapelketa bat antolatzeko, bultzatzaile nagusia Goizuetako Herriko Etxea izan zenez, bere izena hartu zuen Sariak. Hiru edizio burutu dira, bitan Estitxu Arozena suertatu da garaile, bertzean Xabier Silveira. Iaz ez zen egin, baina aurten, modu berri batean eginen da, afarien inguruan. Hemezortzi gazte arituko dira. Bi kanporaketa, Iruñean azaroaren 28an eta Lesakan 29an eta finala Goizuetan burutuko da, abenduaren 5ean.

dira... *«Ez dugu frontoirik bete nahi, elkarteetan eta leku ttikietan saio goxoak egin baizik. Hasieran, gehien kostatzen dena publikoarekin aurrez aurre jartzea da eta giro hori sortu nahi da»*, Jon Abrilen arabera.

Topaketen balorazio baikorra egin dute eta orain arte izandakoen artean emankorrena izan dela uste dute bertan parte hartu dutenek, nahiz eta hamabortz bertsolari bertzerik ez bildu. *«Egia erran, ez gara aunitz gehiago. Xabier Legarreta, Oskar Estanga eta Mikel Altzuartek ezin izan zuten etorri, Bortzirietako batzuk ere falta ziren, baina gainerakoak Etxalarren geunden»*.

Berriz ere **Xalto** Saria antolatzea erabaki dute, aurtengoan lehen aldiz Iparraldeko ordezkariekin. Elkarteetan egindako afalondoetan izanen dira hiru saioak.

### Bertso eskoletan ariketa berriak

Topaketan landutako bertze arlo bat **bertso eskolena** izan zen, eta dinamika berri bat sortzeko, ariketa berriak landu zituzten. *«Berrikuntza mordoxka proposatu dira bertso eskoletan aritzeko* –dio Abrilek– *Hitzekin jokuak eginez, etabar... orain arte bertsolaritza eman den modua erabat baztertu gabe, baina hasten diren gaztetxoendako errexago izateko moduan»*. Horretaz gain, bertso eskolen arteko koordinazioa eman nahi da, materiala elkar trukatu...

Telebistak bertsolaritzan izan dezakeen eragina ere aztertu zuten Etxalarren. Euskal Telebistara bertso programa bueltatu berri den honetan, bere eragina positiboa izan daitekeela uste dute gazteek. *«Lehen, «Hitzetik Hortzera» saioaren lehen aldian 'boom' ikaragarria sumatu zen bertsolaritzan. Orain hamar bat urte dituzten haurrek, ordea, ez dute bertsoa telebistan ezagutzen. Horregatik, positiboa izanen da bertsoa ETBra itzultzea, saioen kopurua igoko delako eta haurrek bertsoa ezagutzeko. Bertso eskoletan izena ematerakoan eragina izanen duela uste dugu»*.

Izan ere, bertso eskoletako ikasturtea hasteko punttuan dago eta izen emateko epea zabalik dago Bortziriak, Goizueta eta Malerrekan. Azken honetan, lehen aldiz aukera eman zaie 8 eta 12 urte artekoko haurrei. Baztanen izen emateko aukera zabaldu dute, eta apuntatutako jende kopuruaren arabera hasiko da edo ez. Sarako eskolan ere, urriaren hasmentan ekin nahi diote, baina oraindik ez da segurua. *«Iaz baimena berantegi iritsi zitzaigun eta ez ginuen bertso eskolarik ukan. Aurten egitea nahi genuke. Alkat aritzen da irakasle gisara eta normalki, ikastoletan ematen du. Gurea da Iparraldeko eskola publiko bakarra»* dio Ana Mari Gurutxet irakasleak. ■

## Eskualdeko bertso eskolak



### Bortziriak

**Sorrera:** 1990
**Irakasleak:** Estitxu Arozena (Lesakan), Iñigo Olaetxea (Etxalarren) eta Estitxu Fernandez (Beran). –Aitzineko urtetan Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien aritu dira–
**Ikasleak:** Lesakan (bapatean nahiz idatziz aritu daitezkenak), bertze herritan, gainerakoak. Igantzi eta Arantzara ere ailegatu nahi da.
**Egoitza:** Lesakako Tantirumairu ikastola –lehenbiziko urteetan Arantzako Ekaitza elkartea eta iaz arte, Lesakako Arrano elkartea–.
**Laguntzaile:** Bortzirietako Euskara Mankomunidadea
**Izen emateko telefonoa:** 637 891 (Manolo)

### Goizueta

**Sorrera:** 1990
**Irakaslea:** Xabier Legarreta –lehen urteetan Jose Manuel Oiartzabal–
**Ikasleak:** 10 eta 14 urte artekoak. Iaz hamar neska-mutil.
**Egoitza:** Goizuetako eskola
**Laguntzaile:** Leitzaldeko Euskara Zerbitzua.
**Izen emateko telefonoa:** 514005 (Ana)

### Malerreka

**Sorrera:** 1997
**Irakasleak:** Zehaztu gabe.
**Ikasleak:** 8 eta 12 urte artekoak.
**Egoitza:** Ikasle kopuru nahikoa biltzen den herri guzietan
**Laguntzaile:** Malerrekako Euskara Zerbitzua
**Izen emateko telefonoa:** 451746 (Esther)

### Baztan

Baztango bertso eskola, Bittor Elizagoienen gidaritzapean sortu zen 1992an. Hasieran, zazpi eta hamabortz urte arteko 22 neska-mutiko aritu ziren. Halere, pixkan-pixkan ikasleak galtzen joan zen eta 1995-96 ikasturtearekin batera, eta bortz ikasle zituela, desagertu zen. Aurten, Euskara Zerbitzuaren eskutik berreskuratzeko saioa egiten ari dira, hori bai, jendeak izena ematen badu.

### Sara

1993an hasi ziren Sarako eskola publikoan bertso eskolarekin. *«10 eta 11 urte arteko hogoi bat ikasle aritzen ziren, Alkat bertsolariarekin»* dio Ana Mari irakasleak. Joan den urtean egin ez bazen ere, aurten berriz hasteko gogoekin daude Sara aldean.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mikel Gerendiain, Jacqueline, Elizabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria... **Inprimategia:** Graficas Ona. ***ttipi-ttapa***k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA°

# Neguko asteburuei begira

## Neguan, hemen Urdazubin arratsaldeko 8etarako ixten dituzte ostatuak



David BIDAURRE
Urdazubi

Udan inguruko herri guzietan izandu gara, bestaz besta, eta neretzako behinpin, ostatuetan lagunekin egotea da merezi duen gauza bakarra, ez gara diskoteketan gor gelditzera joaten.
Neguan, hemen Urdazubin arratsaldeko 8etarako ixten dituzte ostatuak, eta ez dugu dibertitzeko lekurik. Orduan, kotxea hartu eta hor barna ateri behar izaten dugu. Gu normalean Elizondo aldera eta Iparraldera joan ohi gara asteburuetan, Itsasura edo Baionako alde zaharrera ere bai, batzutan.
Gaztetxoagoak direnak Bordatxora-eta joaten dira, baina guk nahikoa bixitatu dugu Bordatxo, eta urtean pare bat aldiz joaten gara bakarrik. Gainera, harat joan ezkero itzultzea gogor xamarra izaten da, ordu erdi baino gehiago, abiaduraren arabera. Baionarat ordea, 20 minutuz iristen zara. Ni igandeetan lanean aritzen naiz, eta horregatik ezin dut hagitz urrun joan.
Bertzalde, kontzerturik-eta ez da egiten herrian, jendeak ez duelakoz ipurdia mugitzen eta alkateak ez duelako nahi. Jendeari ez zaio interesatzen, eta bakoitzak nahi duena egiten du.

## Larunbat batean hutsa eta hurrengoan bete-betea egoten da Doneztebe



Ainhoa ELIZALDE
Saldias

Oraindik kotxerik ez dugunez, *dedoz* ibili behar izaten dugu leku batetik bertzera. Negu parteko asteburuak nahiko rutinarioak izaten dira, edo Bordatxora joan edo bestela nozbait ere Ultzamaldean, Larraintzarren gaupasak egiten direnez, harat joaten gara.
Nik uste dut herri hauetako jendegehiena Bordatxora joaten dela, eta gu ere ia larunbatero Doneztebera joaten gara.
Gure koadrilakoak barrak itxi arte (2 terdiak) herrian egon ohi gara beti, eta gero Bordatxora igotzen gara. Neregatik pixko bat luzatuko nuke ostatuetako ordutegi hori, baina kontutan hartu behar da Bordatxokoekin egina duten *amoldazioa*. Ni partikularki, ez naiz sobera Bordatxo-zalea.
Lehenago kanpoko jende gehiago etortzen zen Doneztteberat, orain Iruñekoak-eta oso gutxi ikusten dira. Halere boladak izaten direla uste dut, larunbat batean hutsa eta hurrengoan betebetea egoten da, ikasleek oporrak hartzen dituztelako.
Gaur egun Intsumiso Eguna, Oinez, Kilometroak eta horrelakoak izaten dira eta mugitu nahi baduzu mugitzen ahal zara.

## Kotxea baldin badik, Hernani aldera jotzen dik jende gehienak



Ibon ELIZEGI
Goizueta

Neguko asteburutan Goizuetako gazte gehienak herrian bertan gelditzen gaituk. Larunbat arratsaldetan Gaztetxean ekintzak antolatzen ditiagu, kontzerturen bat, mus, ping-pong, partxis txapelketak, diapositiba emanaldiak eta hola, denetatik pixkot. Gainera, bideoa, telebista eta kafetera baditik Gaztetxeak, nahiko aurreratua zegok.
Gero, gauetan ez duk ezer izaten, jendea ateratzen duk koadrilarekin trago batzuk hartzera, baino martxa haundirik ez duk izaten herrian. Kotxea baldin badik Hernani aldera jotzen dik jende gehienak.
Hemengo problema komunikazio falta duk, autobus linearik ez baituk, ikaragarri garestia delako, eta Gobernuak ez dik holakorik subentzionatzen, juxtu-juxtu eskolakoa.
Nik neuk gustoko diat asteburuetan mendira joatea, Pirinioetara joaten nauk askotan, eskiatzera eta, baina juergarako plana ere beti izaten diagu larunbatetan.
Hemendik ere ohitura duk igande arratsaldetan Oialumera joateko, eta neguan jende asko joaten duk.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## TSOA



*Lehen telebistan bertsolaritzak*
*bazuen bere papera*
*baina arazo batzun aurrean*
*aldatu zuten jarrera*
*nahiz hiru urtez atzean egon*
*bueltatua da aurrera*
*bertsoa eta bertsolaritza*
*zer diren erakustera*
*berriro ere gure artean*
*baita Hitzetik Hortzera.*

# *Bertsoak berriro telebistan*

*Telebistara hainbeste jende*
*hor egonen da begira*
*bertsolaritzak ospea hartuz*
*sortuko du ikusmira*
*nahiz lehendik ere jende tartean*
*bazuen bere dizdira*
*orain artean plazetan zena*
*zabalduko da herrira*
*pauso honekin erabat igoz*
*ilunpetatik argira.*

Izaskun **ETXEPETELEKU**
**(Lesaka)**

Neurria: Hamarreko Haundia

## IRAKURLEAK MINTZO

**Agurra Kaliforniatik:**

Ainaiz iskribitzen zuen 9-25-97eko "Irakurleak Idazle", Interneteko edizioin gatik. Ni hemen naiz California, USA yan. Ilevete guziz artzendut zuen TTIPI-TTAPA mateko nere ama eta aitei leitzeko. Arrunt maite dute leitzen hoken leku zarreko istorioak. Ni eta nere ainaie biek sortue gara hemen San Francisco, Californian. Horen gatik nere eskuara iskribitzia ezta arras ongi zuen dako. Nere ama eta aite Erratzukoak dire. Hemen nere herrien onduan badugu Euskualdun etxia sarmanta. Iten dire bestak aunitz eta Euskualdunek biltzen dire elkarretara aunitz. Euskualdun etxian izetenda Mus tournamentak, aitzen dire pilotan eta aitzendire danzan. Nere ainaie eta ni beti aitzen gara Euskaraz ama eta aitekin, bano hemengo lenguaie da English. Iviltzen naiz zembataldiz Espanera nere yendakiek kustera. Baitut Tios, Tias, eta lengusuek aunitz. Badire zembait Erratzun, Elizondon, Bidarrain eta Itsasun.

Goraintziak deneri!!!

ARROSA@AOL.COM

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ekomeni da labur idaztea. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira.*




Ongi etorria Passat berrira.

Garai berriak.
Modelo berriak.

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea
✆ 450354 / 450759
**DONEZTEBE**

# • ETXALAR •

**Urriak 19** — USATEGIETAKO IGANDEA

Arratsaldeko 5etatik 6,30etara
**Auskalo taldea (zankudoak)**

Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara
**Gozategirekin dantzaldia**

Antolatzailea: Etxalarko Udala
Laguntzailea: Nafar Gobernua

**Azaroak 7** — UDAZKENEKO KULTUR EGUNAK

Arratsaldeko 7,30etan
Eskola zaharretan
**Elikadura eta osasunari buruzko mintzaldia**
**Julian BEREZIARTUA** (medikua)

**Azaroak 8**

Herriko Ostatuan
**Orioko txiste kontalariekin afaria**

**Azaroak 9**

Arratsaldeko 3etatik 5etara
**Eskulangintza zaborrekin**
**Patxi HERNANDO**

Arratsaldeko 5etatik 8etara
**Gaztelu haizatuak eta zezen mekanikoa**

**Antolatzailea: Euskara Batzordea**
**Laguntzailea: BEM**




KOLABORAZIOA

**Jose Mari IRAZOKI** *Bortzirietako DYAko arduraduna*

# Bortzirietako DYAk bere ateak itxi ditu



Bortzirietako DYA 1984ko apirilan sortu zen, eta 1987ko uztaila bitartean, Donostiako Zentraletik koordinatu ziren larrialdi guztiak. Hortik aitzinera, SOS Nafarroaren esku gelditu zen eginkizun hori. Azken bi urteetan Bortzirietako DYA Elkartea jendez estu xamar ibilki zen, eta zerbitzu txarra ematea baino, ateak ixtea nahiago izan du Zuzendaritza Batzordeak.

**Bertzetik, 12 urtez zerbitzu hau eskaini ondotik, pentsatzen dugu osasun garraioaren afera ezin dela boluntarioen edo objetoreen eskuetan utzi.**

Bortzirietako DYA Elkartea helburu bakarrarekin sortu zen, larrialdiko garraioa behar zutenei eskuzabaltasunezko zerbitzu bat eskaintzea, alegia, Bortzirietan horrelako zerbitzuen hutsunea nabarmena zela ikusirik.

Lesakako Udalak Telefonicaren eraikuntzak utzi zituen eta alderdi ekonomikoa zen bertze erronka nagusienetako bat. Alde horretatik, Udalen laguntzak, bazkideen aportazioak eta donazioak izan dira diru-iturri nagusiak.

Hornitutako ibilgailu baten falta zen bertze arazo bat, baina Iruñeko DYAko Zentralak anbulantzia bat utzi zuen. Sei hilabeteren buruan, Larrialdietarako Garraio Zerbitzua martxan paratzea lortu zuen DYAk, denen laguntzarekin.

1983 eta 1996. urteen artean, Bortzirietako anbulantzia 1.525 alditan mobilizatu zen, eritasun edo istripu kasuetarako, eta larrialdi garraioak eginez beti ere. Hori, kiroletako edo kultur arloko prebentzio zerbitzuak aipatu gabe (migatuak...).

Nere ustez, zonaldean beharrezkoa da anbulantzia bat. Gaur egun hurbilen ditugun anbulantziak Doneztebe edo Irundik etortzen dira, eta honaino etortzeko 20 minututik goiti behar dute, larrialdia suertatzen den momentuan libre baldin badaude, behinik behin.

Bai Udaletako osasun komisioa eta bai eskualdeko medikuek bildu eta balorazio sakona egin beharko lukete, gisa honetako larrialdi garraioetan dauden hutsuneak aztertu eta Foru Gobernuari ongi gauzatutako denuntziak igorriz, datak, denborak...

Bertzetik, 12 urtez zerbitzu hau eskaini ondotik, pentsatzen dugu osasun garraioaren afera ezin dela boluntarioen edo objetoreen eskuetan utzi. Ez dugu egundaino dudatan paratu edozein gisako urgentziak profesionalen bidez egin behar direnik.

Entitate honek Bortzirietako Udalei bere esker ona adierazi nahi die, Lesakakoari batez ere, lokala uzteagatik. Baita Lesakako Osasun Zentruko medikuei eta urteotan modu batean edo bertzean kolaboratu duten guztiei ere.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 97-X-3

*Iruñeko Pilotazaleen Txokoak omenaldia eskaini zion Julian Retegiri, urteko nafar pilotaririk onena izateagatik. Bihar, urriak 10, 43 urte beteko ditu eratsundarrak.*

Diario de Noticias 97-X-3

*«Momentuz, abuztu eta irailean, nahiko ongi ibili naiz bikoteka bainan oraindik ez dakit nola aterako zaidan lau terdikoa».*

**Asier OLAIZOLA**
Goizuetako Pilotaria
Diario de Noticias 97-X-3

## 11 GALDERA LABUR



**Mª Eugenia URRUTIA**
Irakaslea Iruritan

- **Zenbat haur zure bizitzan?**
- Etxean bi, kanpoan pila bat.
- **Irakasle gisa, lehen edo oraingo haurrak?**
- Denak maitagarriak, bakoitza bere garaian.
- **Amaiurrek, zer dakarkizu burura?**
- Nere haurtzaroa.
- **Eskualdetik gazteak ihes ez joateko errezeta?**
- Lanpostuak hemen sortzea.
- **Baztandarren ezaugarri nagusiena?**
- Kanpokoendako tuku-tuku, baztandar bezela nobleak.
- **Mutildantzetan, gizon eta emakumeak eskubide berdinak?**
- Gaur egun, argi eta garbi, bai.
- **Zein pertsonai historikok liluratzen zaitu?**
- Che Gevarak
- **Irla batera eramanen edota sekula eramanen ez zenuena?**
- Liburu bat eta suge bat.
- **Gizon bateri koloreak ateratzeko moduko esaldiren bat?**
- Zu zara nere bihotzeko azukre koxkorra.
- **Gainera euskaraz?**
- Euskaraz, doike.
- **Izkutuan duzun (zenuen) sekreturen bat?**
- Ezin dut erran, ...sekretuak izatekotan.

**Aranguren**
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

**Xirgil**
ileapaindegia
© 631462 • Altzate I • BERA

**OKANE**
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**Dia %**
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 63 14 03 • BERA

**LIKIDAZIOA**
**% 40ko DESKONTUA**


*Opariak, boltsoak, karterak, erlojuak, manikura kutxatilak, bitxiak, zeramikazko irudiak, gerrikoak*
*Eguberrietako apaindurak (bolak, ...)*
**Aprobetxatu! Berehala dira Eguberriak**
DROGUERIA MOLINERO
Eztegara 19 • © 63 02 40 • BERA

**ARIN** ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE
- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak



ERREPIDEAK

# Endarlatsa-Behobia bideaz aritzeko bilduko dira Nafarroa, Gipuzkoa eta Bortzirietako ordezkariak

## Irtenbide adostu bat eman nahi zaio errepide zati horri

Endarlatsa eta Behobia tartean, N-121-A errepidearen moldaketaz solasteko eta eztabaidatzeko bilduko dira urrian Bortzirietan, Nafarroako Gobernuko, Gipuzkoako Diputazioko eta Bortzirietako Herriko Etxeetako ordezkariak.

Izan ere, gai hau mahai gainean denbora luzez baldin badago ere, orain arte ez da adostasunik lortu, batez ere proiektuaren aurrekontuari eta finantziazioari dagokionez. Jakina denez, bide tarte hori Gipuzkoan baldin badago ere, errepidea Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikabide Sailaren esku dago.

Bortzirietako alkateak Nafarroako Gobernuarekin eta Gipuzkoako Diputazioarekin bilduak dira berriki, bakoitzarekin bere aldetik.

Jose Maria Palacios, Iruñeko Herrilan, Garraio eta Komunikabide kontseilariarekin irailaren 24an egon ziren. Palaciosek, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako proposamena defendatu zuen, erran nahi baita, lanaren aurrekontua (3.600 milioi) Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Diputazioaren artean erdibana ordaintzea. Proiektu hau *«anbiziosoagoa da»*, Manuel Iriarte, Berako alkatearen ustez. Bidearen %60an hirugarren karril bat sartuko litzateke.



Endarlatsa-Behobia errepidearen moldaketa proiektua ez da adostu oraindik — Artxiboa

Astebete beranduago, Gipuzkoako Irizar diputatuarekin izandako bileran, ordea, honek proiektu merkeago bat sustengatu zuen eta Diputaziotik gehienez 900 milioi emanen direla gaineratu. Gipuzkoako diputatuak zioenez, Endarlatsa-Behobia errepidea baino inportanteagoak badituzte, trafiko intentsitate haundiagokoak, alegia. Halere, zerbait egiteko intentzioa dutela adierazi zuen diputatuak.

Bilera honetan, Bortzirietako alkateek hiru aldeak biltzea proposatu zuten, behin betiko irtenbide egoki eta adostu bat lortzeko helburuaekin. Orain, Nafarroako Gobernuko ordezkariekin eguna xehetzea falta da.

ADINEKOAK

### Adintuentzako oporrak

Insersok, urtero egiten ohi duenez, «Adintuentzako oporrak» delako programan izena emateko epea zabaldu du. Parte hartzeko baldintzak honako hauek dira: 65 urte bete ala pentsiodun izatea (jubilazioa, ezintasuna, alarguntsa) eta bere kabuz ongi moldatzea. Bidaia hautatzerakoan, aukera ugari daude, bertzeak bertze, Kanariak, Baleare Uharteak, Andaluzia... eta prezioak hagitz txukunak dira.

Eskaerarekin batera, norbera eta bizikidearen Nortasun Agiriak aurkeztu behar dira, urriaren 15a baino lehen, Gizarte Langileen bulegoan. Informazio gehiagorako deitu Bortzirietan 635036 telefonora (Mikel), Malerrekan 451746ra (Begoña), Baztanen 580006ra (Elena) edo Leitzaldeko 610617ra (Virginia).


**Denda traspasatzen da**




**NAFARROAKO PRODVKTV BEREZIAK**

(ELIKADURA-ESKULANGINTZA)

Altzate 14 • **BERA**

**Ezin delakoz atenditu**

*Interesatuek deitu*
***urriaren 26a baino lehen***
*631151 edo 631199 telefonoetara*

# BERA

# Herri Olinpiadak ospatuko dira urri eta azaroko larunbatetan

## DBHn ikasten dutenek bakarrik hartzen ahalko dute parte

ASIER GOGORZA

Larunbat honetan hasi eta 8 asteburuz luzatuko dira Kaxerna Aisialdi Taldeak 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzako antolatu dituen Herri Olinpiadak.

Patinetan ibiltzea, paretetan muralak margotzea, jinkana kulturala, kartutxo bilketa, eskulanak, hockeya, parodia eta sukaldaritza lehiaketa izanen dira, hurrenez hurren, heldu diren bi hilabeteotan partehartzaileek burutu beharreko 8 probak.

Gazte Jokoen segimendua egin zenutenek proba hauen nondik norakoak ezagun dituzue, eta gainerakoek larunbatean arratsaldeko 3ak aldera Altzate karrikara hurbiltzea bertzerik ez duzue, jokoetan parte hartu nahiz kanpotik ikusi, bi aukerak aski dibertigarriak dira eta.

Izena emateko epea itxia da dagoenekoz (asteazkena zen azken eguna), bainan erranen dugu koadrila edo talde bakotxa 6-8 partaidez osatuko dela, beti ere DBHko ikasleak direlarik protagonista.

Labiaga Ikastola eta Berako Udalaren laguntza jaso dute Kaxerna Aisialdi Taldekoek.




### Miriam Blas Europako laugarren

Suitzako Chateaux d'Eux herrian jokatu den Europako Mendi Bizikleta Txapelketan 4. postua eskuratu du Miriam Blasek junior kategorian, jautsierako proban. Joan den irailaren 20an izan zen hori, eta sailkapen txandetan jautsiera onak egin bazituen ere, ohorezkoan frenoekin arazoak izan zituen, eta 4. denborarik onena egin zuen halere.

Suitzan 10 egun pasatu ondotik, hilabete inguru emanen du entrenatu gabe, eta gero berriz ere martxoan hasten den denboraldia prestatzera. Hemendik aitzinera zailagoa izanen du Miriamek, juniorretatik elitera pasako baita.

### Polikiroldegiko ikastaroak

Berriki abiatua da Toki Ona kiroldegian 97-98 denboraldia, eta ohiko instalazioak eskaintzeaz gain, hau da, sauna, frontoi ttikia, pista haundia eta giharketa gela, zenbait ikastaro ere martxan paratu dituzte.

Astelehen eta asteazkenetan karatea izanen da, haurrak 17,30-etatik 18,30etarat, eta 20etatik 21,30etarat helduak. Astearte eta ortzegunetan, berriz, mantenimendu soinketaren txanda etorriko da, 10etatik 11etarat, eta 18,30etatik 19,30etarat.

Bertzetik, aerobic klaseak edo hirugarren adinekoentzako soinketa klaseak ere emanen dituzte.

### Larunbatean txiste afaria eginen da lamotenean

Larunbat honetan (urriak 11) ongi afaldu eta digestioa egin bitartean irriz lehertzeko aukera izanen dute Gure Txokoa Elkartean, arratseko 9,30etan eginen den afarira agertzen diren guziek.

Txartelak erosteko epea asteartean akautu bazen ere, tokiren bat sobratu izanen zen akaso, eta oraindik garaiz zaude sarrera bat eskuratzeko.

Horretarako, Errekalden edo Bidaxkan eskatu beharko duzu, edo Euskara Mankomunidadera deitu bertzenaz, 634125 telefonora.

Fritoak, arrain-zopa, haragia saltsan eta postrea izanen da afarirako menua, eta 2.000 pta gostako da, edaria eta kafea barne. Txiste kontalari, berriz, ETBko Txiskolan txapeldun ateri ziren oriotarrak ariko dira.

## flash

**J. Carlos Garro** beratarrak Brasilen jokatu diren Munduko I.go Natur Jokoetan parte hartu du, eta mendi bizikleta probako lehen etapan 3. postua lortu zuen. Munduko Jokoetan 50 herrialdetako 800 atletatik goiti lehiatu dira, naturarekin erlazioa duten kiroletan; rafting, kanoak, mendi bizikleta...

**Gripearen...** kontrako txertaldia irailaren 15etik martxan da Berako Osasun Etxean, eta urriaren 31a bitarte txerto hori hartzeko aukera izanen da, eguerdiko 12etatik 1era.

**Erranera zaharren** bilduma lehiaketan *«Uzta biltzaileak: Zia»* izeneko taldea subertu da irabazle. Goitizen horren gibelean Ana Cascallana, Paskual Etxeberria eta Sofia Garcia Larratxe aritu dira lanean. Sariak txiste afariaren barnean (etzi) partituko dira.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 63 00 83 BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA
Igande goizetan irekia

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

# LESAKA

## flash

**San Fermin elkartearen Eguna**
Urriaren 19an erretiratuen elkarteak bere eguna ospatuko du. 11,30etan, aurten hil diren bazkideentzako meza eginen da eta 2etan bazkaria Kasinoan. Gero musika izanen dute eta txapelketetako sariak banatuko dira. Txartelak egoitzan salgai daude urriaren 16a arte, 2.900 pezetan.

**Manifestaziorik** ez zen egiterik izan irailaren 28an, herria guardiazibilak hartua baitzegoen. Biharamonean ere, Matxinbeltzenea parean kontrola paratu zuten.



**Euskal Herriko Marmitako txapelketan bikain**
Irailaren 21ean burutu zen Trintxerpen Euskal Herriko Marmitako txapelketa eta herriko elkarteek emaitza bikainak lortu zituztela erran behar da. Fermin Etxarte eta Tomas Maiak, Eguzki elkartearen izenean, bigarren postua eskuratu zuten eta Periko Maia eta Fermin Erbitik, Arkupe elkartearen izenean, bosgarrena. Basurde elkartearen izenean Dionisio Arriola eta Patxi Oteiza aritu ziren. Guzira, Euskal Herriko 128 elkarte aurkeztu ziren. Argazkian, lesakarrak Irizar eta Arzak sukaldariekin ageri dira.

# Hirigintza Plan berriari zenbait alegazio aurkeztu zaizkio

## Alkaiagan egin nahi diren pisuak ezinegona sortu dute auzoan

**AITOR AROZENA**

Jendaurrean irailaren 15a arte egon ondotik, berrogei bat alegazio aurkeztu zaizkio udal hirigintza plan berriari. Gehienetan, beraien lurrak bide publikoetarako erabiliko diren jabeak dira, baina bada hiru familia aterbetzen dituen etxebizitza zutik mantentzea eskatzen duen bat ere. Alkaiagako industrialdearen inguruan egin gogo diren etxeek ere ezinegona sortu dute auzotarren artean. Izan ere, plan berriaren arabera, Alkaiaga eta Landazelaiak inguruan eraikiko dira etxebizitza gehienak. Aisialdirako guneak eta parkeak ere, gehien bat Landezelaietan eginen dira. Bertan diskoteka bat egiteko asmoa dago, eta horren inguruan joanen litzateke zerbitzu gune bat. Planaren aurka azaldu diren zenbait talderen ustez, *«gainerako herritarretaz ahantzi egin dira, parkeak egiterakoan»*. Lokal publikoei dagokionez, kiroldegia eraikiko da lehengo Zahar-Etxea zegoen tokian.

HBk plan honen erakusketa publikoaren epea luzatzea eskatu zuen udal batzarrean, beraien ustez hilabete bat bertzerik egon ez delako eta hori uda partean. PNVren ustez, berriz, *«legez behar dena baino gehiago, ia bi hilabete egon da jendaurrean eta nahi izan duen guziak Udaletxetik pasatu da galderak egitera»*.

Herriko Etxeko arkupetan egindako batzarrean plana gaitzetsi zuten zenbait herritarrek, *«herriaren beharrei erantzuten ez zaiela»* erranez.

## Pertsonaia

### *«Plater tiraketa baino nahiago dut zakurrarekin ehizatzea»*

Hamalau urte bertzerik ez badu ere, irailaren 28an Espainiako San Huberto Ehizi txapelketa irabazi zuen Tafallan Ione Fagoaga Etxarte lesakarrak. Txapelketa honetan, ehiztaria eta zakurraren abilidadeak eta elkar hartzea neurtzen dira. Lehendik Nafarroa mailakoa irabazia zuen Ionek. Orain, urriaren 12tik 18ra bitartean, Kroaziara joatekoa da, Munduko txapelketan parte hartzera eta *«zerbait haundia lortzeko»* ilusioa du. Han ere, parte hartzaile gazteena izanen da, noski.
Tafallakoa ez da, ordea, neska gazte honek irabazitako sari bakarra. Aurten, Ehiza ibilaldia modalitatean (plater tiraketa) Nafarroako txapeldun eta Espainiako txapelketan bosgarren suertatu da. Eraberean, Nafarroako txapela eskuratua du aurten, *Ehiza ttikia zakurrarekin* izeneko modalitatean.



Ione FAGOAGA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ✆ 63 79 44
LESAKA

## ETXALAR

# Urriaren 19an ospatuko da Usategietako igandea

Gozategi taldea ariko da arratsaldez

**PELLO APEZETXEA**

Ohitura den bezala, urriaren hirugarren igandea izanen da Usategietako igande deitutakoa. Goizaldea usategien inguruko eremuak ikusten ibiltzen da jendea, eta arratsaldean karrikan eta herriko plazan bildu. Horregatik, arratsalderako antolatzen du Udalak musika soinua. Aurten Gozategi Taldearen soinu eta kantuaz gozatu ahal izanen da, 6,30etatik 9,30etara. Horren aitzinetik, ordea, Auskalo Taldeko zangoluzeak karrikak zeharkatu eta animatzen ibiliko dira, 5,30etan hasita.



Argazkia: PELLO

**Saroietakoen Urrezko Ezteiak**

Rafael Olagarai eta Jeroni Etxartek 50 urte betetzen dituzte aurten, aste honetan preziski, beren ezkontza egin zutenetik, 1947ko urriaren 9an.

### Ehizarako postuen enkantea apal

3.695.000 pezeta bildu ditu, denetara, hil honen 13an egindako enkanteak. Postu garestienek ere, hala jotakoak beti, ez dute duela urte batzuetako mailarik harrapatu. Parapeto izenekoa 272.000 pezetan gelditu da, aitzineko urtetan 700.000 pezeta gainditu dituena. Aurten 514.000 ordaindu da gehien, 13. zenbakiko postua. Nongo jendeak hartu dituen ehiza postuak? Gehien irundarrek, 12 postu. Bertze hamarrak, Olague, Etxalar, Donostia, Hondarribia, Bera eta Baionakoek hartu dituzte. Sesta egunean zerbait aldatu ziren batzuk, eta denetara 700.000 pezeta gehiago sartuko dira Udaletxeko kutxan.

### Ikastaroak

Udazkenean sartzearekin batera, ikastaldiak egiteko gogoa sortzen da eta aurten ere zenbait eginen da. Larraburuan, iaz bezala, gimnasia eta sukaldaritza ikastaroak. Eskola zaharretan, berriz, eskulan ikastaroa. Baina bertze ikastaroa ere eginen da eskola zaharretan, moble errestaurazio lana ikasteko, eta horretarako ere jende franko ari zen izena ematen.

### Eskolako haurrak Bertizera

Etxalarko eta Arantzako bigarren eta hirugarren zikloko haurrek, Bertiz eta bertako erakusketak ikusteko aukera izan dute joan den ortziralean. Ez barkazio eguna zelako, eskolako egun normala bezala baizik. Liburuetan baino aisago eta egokiago ikasten baia hainbat gauza, gisa horretako bidaietan.


«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak



© 635290
ETXALAR
udazkeneko Menu berezia

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Ehiza Fianbreak
Odolkiz betetako aza pastela
Ilar eta Pikillo saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko era zaharrera prestatutako usoa, galeper arrraultze eta gaztain pureaz lagunduta
Gaztain eta Txokolate Pastela
2.900 pta.
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

## IGANTZI





**Bestetako irudiak. Ederrak izan dira, bai, aurtengoak** Arg.: Oskar

# A zer bestak aurtengoak ere!

## Egitarau osoa bete ahal izan da bigarren urtez segidan

OSKAR TXOPERENA

Zeinen gustora gelditu den jendea, aurtengo bestekin! Joan den urtean besta borobilak atera zirela erran bagenuen, zer erranen dugu aurtengoetaz?

Ez gara hemen hasiko egitarau osoari errepasoa ematen, baina, nahi izan duenak gozatzeko aukera izan duela erran behar, hagitz gusto ezberdinak asetzeko ekitaldiak izan baitira. Aurten ez dugu pilotaleku berriaren beharrik sumatu, eguraldi zoragarria izan dugulako. Halere, zeinen ongi heldu den urterako egina balego!

### Jaione Seinentzat administrari lanpostu berria

Denbora aunitz pasatu behar izan du administrari lanpostua zeinek eskuratzen duen jakin ahal izateko. Lehendabiziko deialdia hutsean gelditu zen probak inork gainditu ez zituelako, eta oraingoak, joan den astean bukatu ziren, uztailan hasita. Azkenerarte lehia gogorra izan da Jaione Sein eta Tere Bereauren artean, eta igantziarra hagitz guttigatik gelditu da aitzinetik.

### Laugarren irakaslea eskolan

Gosta zaie Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamendukoei baina, azkenean, aukeratu dute irakasle berria Igantzirako. Dagoeneko lanean dugu eskolan Kristina iruñearra. Ongi etorria eta zorte haundia izan dezala!


**ZALAIN** JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
**Boda eta banketeak ematen dira**

*EKAITZA kafetegia*
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
**Lagunekin elkartzeko toki egokia**
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**KIROLAK ZELA**
Altzate 6, ✆ 63 05 98
**BERA**

# Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA
- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piszina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
**LESAKA** (Zalain industrialdearen ondoan)
TOLDOS BAZTAN, S.L.
Tel.: 929 01 59 23

**FUNERARIA ZERBITZUAK**
**DONEZTEBEn**
**MALDAERREKA, S.L.**
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## ARANTZA

# Iturberri eta Iturriotzeko moldatze lanak akautu dituzte auzolanean

Goizuetara joan ziren gazteak larunbatean

ELIXABET ETA GARBIÑE

Iturberri eta Iturriotzen egiten ari ziren lanak bukatu dituzte herriko langileek. Honenbertzez, Iturberrik idorpe berria dauka, aurrekoa aspaldian eroria baitzen, eta bere betiko itxura eman diote berriro. Iturriotzen berriz, zura guztiak berriak sartu dituzte.

Herriko Etxeko langileak diren Miguel, Juan Mari eta Jose izan dira lanean aritu direnak, baina hauekin batera, auzolanean aritu dira Gerbasio, Alfonso, Gregorio, Seberino, Juanito eta Kallo.

### Goizuetara oinez

Pasa den larunbatean, urriaren 4an, Gazte Asanbladak mendi ibilaldi bat egin zuen Goizuetara. Eguerdi partean bertara iritsi ondoren, bertako gazteekin bazkaldu eta arratsaldea bertan pasa ondoren, autobusez bueltatu ziren herrira.

### Solasaldia

Urriaren 3an, ortziralean, Ekaitza elkartean, HBko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa dela eta solasaldi bat izan zen. Bertan, egungo egoera politikoa ere aztergai izan zen.

### Zuzenketa

Aste Kulturala urriaren 30etik azaroaren 2ra burututuko da eta ez irailaren 30etik urriaren 2ra, aitzineko alean aipatu genuen bezala.

Barkamenak.

### Euskara ikastera animatu du Mankomunidadeak

Bortzirietako Euskaltegiak 97-98 ikasturteari ekin dioela eta, Euskara Mankomunidadeak herritarrak euskara ikastera edota euskaraz alfabetatzera bultzatu nahi izan ditu. Izan ere, aunitzetan euskaraz solasten badakitenek ez dute euskaraz leitzen eta eskribitzen ikasteko beharrik ikusten, baina Mankomunidadeak euskaldunak euskaraz alfabetatzera animatu nahi ditu.

Mankomunidadeak, joan den ikasturtean ikasle eta ordu bakoitzeko 276 pezetako dirulaguntza eman dio Euskaltegiari, hau da, 4.843.000 pezeta ingurutu.



### Ordiziako ileapaintze lehiaketan Amaia Apezetxea irabazle

Irailaren 28an, Ordizian ospatu zen profesional mailako ileapaintze lehiaketan zazpi lagun aritu ziren, sei gipuzkoar eta nafar bakarra, Amaia Apezetxea aranztarra, hain zuzen ere. Bi proba burutu behar izan zituzten, moztea eta sekatzea, alde batetik eta *Fantasiazko ileapaintzea* deitutakoa, bertzetik. Lehenengo proban bigarren postua lortu zuen Amaiak eta bigarrenean, berriz, irabazle suertatu zen. Amaiak bi trofeo eta 15.000 pezeta etxeratu zituen. Argazkiaren eskuinaldean ageri da Amaia, Ordiziako proban bere modelo gisara erabili zuen Ainhoa ahizparekin. Zorionak!



© 631076 • BERA



LESAKA


MARTIKO
*Gure baserrietako produktuak*
© (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13
Zalain Poligonoa, BERA

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**
BERA DESINFECCIONES
© 63 01 55
BERA

## MALERREKA

# Hirutan hogei pertsona artisautza eta jostungintza ikastaroetan

### Zaharberritze edo errestauraziorako izena eman daiteke oraindik

TXEMA ALDABE

Ezpelura emakume taldeak antolatutako ikastaroetan artisautzan hiru talde sortu dira Sunbillan (astearte eta ortzegunetan, 10etatik 12etara), Donamarian (ortzegunetan 3etatik 6etara) eta Zubietan (asteazken eta ortziraletan, 3etatik 5etara), Mª Puy iruritarra irakaslearekin. Josten ikasteko, berriz, talde bat osatu da eta Doneztebeko Juansenean arituko da astelehen eta ortzegunetan, arratsaldeko 3etatik 5etara, Blanki Otxandorena irakasle duela. Ikastaro guziek 60 orduko iraunen dute eta apuntatzeko 10.250 pezeta ordaindu behar du bakoitzak. Mobleen zaharberritzerako, oraingoz ez da jende aski, 10-12 lagun behar baitira. Apuntatzeko deitu 451746ra.



### Doneztebeko dantza taldean apuntatzeko epea zabalik

Euskal dantzak ikasi nahi duenak badu aukera ederra orain. Horretarako deitu behar du 450388 telefonora. Donezteben badira bi dantza talde, bat helduena eta bertzea gazteena. Oraingoz irakaslea zein izanen den ez bada jakiten ere, orain arte aritu den Mª Kruz ez dela izanen ziurra da.

### Mendi ateraldia eta eskubaloia martxan Donezteben

Erreka eskubaloiko bi taldeek joan den larunbatean hasi zuten txapelketa. Helduak 2. nazionalean ari dira, Nafarroa eta Errioxan. 17 talde dira, hiru multzotan banaturik eta hobekien sailkatutakoak, kategoriaz goitzeko sektorean jokatuko dute. Jubenilak berriz, 13 talde dira, hiru multzotan, eta bakoitzetik bi hoberenak pasako dira hurrengo fasera. Larunbat honetan, bi taldeak etxean arituko dira.

Bertzalde, Erreka mendi taldea ere hasi da bere ateraldiak egiten. Lehenbizikoa Mendarrain kaskora egin zuten irailaren 28an. Hurrengoa Pilarika Egunean izanen dute eta horrela hamabortzero, ekaina bitarte.

## ▼ flash

**Eskolako sukaldaria**
Ramontxo Etxebeste aukeratu du Doneztebeko Eskola Kontseiluak sukaldari bezala. Ministeritzatik igorritako zerrendan 9 sukaldari eta janari enpresa agertzen ziren eta bakoitzak eskaintzen zuen otorduko prezioa. Etxebesterena, otorduko 425 pezetarekin garestienetakoa bazen ere, izan zen aukeratua, kalitate aldetik eta prestatzen duenarekin jendea pozik dagoelako.

**Bi langile**
hartu ditu Doneztebeko udalak. Mikel Gastesi eta Poti Rekarte arituko dira ziurrenik Eguberriak arte herriko lanetan, ikasten hasi dira bertze langileen ordez.

**Zapatadenda berria**
ideki dute Merkatari karrikan, Vasconia Bankoaren ondoan. *Arandano* da bere izena.

ALDABE
TAXIA
DONEZTEBE
✆ 450687

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA
MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

Servicios de Asistencia Personal S.Coop.
SEINDEA
Laguntza Pertsonaletarako Zerbitzuak Kb

Arreta eta zainketa pertsonala:
• Haurrei
• Eriei
• Ezindu fisiko eta psikikoei
• Bere buruaz baliatzen diren eta ez diren adintuei
Zona guziko langileak
Nafarroako mendialde osorako zerbitzua

Garbitasun pertsonala, ohatzean daudenen mugitzea, medikazio eta jatekoen kontrola...
Garbitasuna etxean, arropa garbitzea eta txukuntzea, sukaldea...
Laguntza psikologikoa eta afektiboa
Aisialdirako ekitaldietan konpainia: paseoak, irakurketa, eskurtsioak...
Erosketak, tramiteak, gestioak edo medikuari bisitak egiteko laguntza

Zerbitzua kontratu eta Erantzukizun Zibileko aseguruaren bitartez bermatua

Urteko egun guzietarako zerbitzua, edozein ordutan (goiz, arratsalde edo gauez), behar duzunean

Nafarroako Aurrezki Kutxako Club Edad de Oro txartelaren jabeendako prezio bereziak
Bulego orduak: Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara.

Informazioa eta kontsultak:
Trinidad 12, behea
31860 IRURTZUN
Tel-Faxa: 50 01 28

Citroën-en azkena ezagutzeko
ez duzu urrun joan beharrik

## BEINTZA-LABAIEN

# Auzolanari buruzko udal ordenantza onartu du Herriko Etxeak

Gehienez, urtean bost egunez arituko da familia bakoitzeko norbait

TTIPI-TTAPA

Beinta-Labaiengo Herriko Etxeak auzolana arautzen duen ordenantza onartu du udal batzarrean. Herriko bideak mantentzea eta hobetzea eta, orokorrean, Herriko Etxearen konpetentzia diren lanak egiteko, herritarren partehartzea arautzea da ordenantza honen helburua.

Honela, auzolanean parte hartu beharko dute hemezortzi eta hirutan hogeitabortz urte arteko norbait duten familiak. Familia bakoitzetik lagun bat arituko da auzolanean eta ezin izanen da familiako bi auzolan batera baino gehiago egin. Festetan, garbiketa egiteko, familia bakoitzetik bat arituko da lanean.

Lan hauetan ari direla, herritarrek izan ditzaketen istripuak, aseguru baten bidez estaliko ditu Herriko Etxeak.



Herriko bideak hobetzea izanen da auzolanaren helburuetako bat

### Urtean bortz

Urtean bortz auzolan baino gehiago ezin izanen dira egin, ezta hiru segidan baino gehiago eta edozein egunetan eginen dira, jai egunetan ezik. Auzolanean parte hartzeko abisua, bi egun aurretik jasoko da, ohiko modua erabiliz. Norbaitek, eri egoteagatik edo lan arazoak medio, ezin badu auzolanean parte hartu, 24 orduko epean jakinarazi beharko du, idatziz. Herriko Etxeak, orduan, beste egun baterako utzi dezake auzolan horren betetzea.

Auzolaneko prestazioa, bertze familia bateko pertsona batek egin dezake edo 5.000 pezeta ordainduta, batere egin gabe utzi.

### Bi ehiztarik Udalaren kontra jarritako errekurtsoa gutxietsi du epaileak

Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiak, bi ehiztarik Beintza-Labaiengo udalaren kontra ezarritako errekurtsoa gutxietsi du. Udalak ehiza-txartelak ez zien eman bi ehiztari hauei, herriko *«egiazko bizilagunak»* ez zirela esanez. Udalak ehiza-postuak emateko baldintzetan, herrian bertan jaioa izatea edo *«egiazko bizilaguna»* izatea eskatzen du. Bi ehiztari hauek, herriko bi emakumekin ezkonduak badaude ere, ez dira egiazko bizilagunak, ez baitira guttienez bederatzi hilabetez Beintza-Labaienen bizi.

## MENDIA

# Plantazioetarako laguntzak banatu ditu Nafarroako Gobernuak

28 milioitik goiti eskualdean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailak ia 28 milioi pezetako dirulaguntza emanen diete eskualdeko zenbait Herriko Etxe eta partikularrei, mendi lanak egiteko.

Zehazki, Berako Herriko Etxeak 6,3 milioi pezeta, Goizuetakoak 2,1 milioi, Igantzikoak 417.000 pezeta eta Lesakakoak 511.000 pezeta jasoko dituzte plantazioak egiteko.

### Gehienak plantazioetarako...

Partikularrei dagokienez, 18 milioi terdi pasatuak jasoko dituzte Iruñetik. Arantzan, zenbait partikularrek 1.186.000 pezeta jasoko dituzte; 247.000 pezeta Beran; 1.037.000 pezeta Beintza-Labaienen; 710.000 pezeta Urrotzen; 2.376.000 pezeta Lesakan; 180.000 pezeta Zigan; 225.000 pezeta Arraiozen; 1.629.000 pezeta Igantzin; 4.369.000 pezeta Goizuetan; 104.000 pezeta Aranon; 299.000 pezeta Etxalarren; 51.000 pezeta Oronozen; 510.000 pezeta Donezteben; 1.302.000 pezeta Zubietan; 568.000 pezeta Sunbillan; 477.000 pezeta Saldiasen; 20.000 pezeta Gartzainen; 234.000 pezeta Lekarozen; 1.398.000 pezeta Elizondon; 122.000 pezeta Saldiasen; 229.000 pezeta Ezkurran; 515.000 pezeta Urdazubin; 10.000 pezeta Amaiurren; 49.000 pezeta Legasan eta 183.000 pezeta Narbarten, gehienak ere plantazio lanak egiteko.

### ...baina baita onddo produkziorako ere

Mendi plantazioak egiteko subentzio haueitaz gain, Elgorriagako udalak 515.000 pezeta jasoko ditu onddoen produkzioa hobetzeko.

# Talleres Eder

## Citröen agente ofizial berria

# Donezteben




Citroën-ek Agente Ofizial berria izendatu du Donezteben.

Etxetik hurbil Citroën gama osoa ikusgai edukitzeko, eta aldiberean, abantaila eta zerbitzu guztiak aprobetxatzeko:

- Grua egun osoan.
- Mekanika-elektrizitatea, txapa-pintura edozein autorentzat.
- Autoak errentan, 1.275 pta/eguneko.
- **Eurocasión** ibilgailuak guttienez urte bateko **garantiarekin.**

Gure garantiarekin **Cirmauto**
**Zaragoza Etorb.**
**Tfnoa.: 24 93 00.** Iruñea

Zatoz **CITROËN XSARA BERRIA** ezagutzera gure erakusketara. Eta baita turismo eta auto industrialen gama osoa ere.




**TALLERES EDER** Leitzako errepidea, z/g. Donezteba. Tfnoa.: 45 05 25

## GOIZUETA



Ikusmin berezia sortu zuen perretxiko erakusketak Esteban

# Berrehun perretxiku mota ikusgai I. Mikologia Jardunaldietan

Datorren urtean lehiaketa antolatu nahi da

ESTEBAN AROZENA

Artikutza eta Mandoegi parajetara jo zuten herriko onttozaleei eta Irunberrira joan ziren Aranzadiko adituei esker, ia 200 perretxiku klase ikusteko, ukitzeko eta usaintzeko aukera eduki zuten herritarrek irailaren 27 eta 28an.

Ehiztarien eta gurasoen elkarteek antolatutako lehenengo Mikologia Jardunaldiaren barrenekoak ziren aipatutako irteera hauek eta ondoren herriko plazan jarri zen erakusketa eta esan behar da, erantzun ezin hobea izan zuela ekimen honek, jendetza ikaragarria ibili baitzen bi egunetarako iragarrita zeuden ekitaldietan.

Antolatzaile buru izan zen Xabier Taberna arrunt pozik agertzen zen jardunaldien emaitzarekin, batez ere, oso aurrekontu murritzarekin –100.000 pezeta inguru– eta presaka xamar eratu direla kontutan hartzen baldin bada. Gainera, hurrengo urtera begira jarri da dagoeneko Xabier, eta asmoak ongi ateratzen baldin bazaizkio, lehiaketa erara antolatuko omen da bigarren edizioa.



### Ander Olaizola Alaskan barrena

Ander Olaizola herritar gazteak ia bi hilabete iraun duen bidai ahaztezina egin berria du Alaskako lurretan barrena. Kanping-denda bizkarrean hartuta, bakar-bakarrik ibili omen da Ander paraje haietan, diapositiba bilduma eder bat eskuratzea zelarik bere helburuetako bat. Bere aurrean ikusi ahal izan dituen hartza, atze, arrano eta abarrek aukera paregabea eman omen diote horretarako, argazkian nabarmenki ikusten denez Argazkia: Ander Olaizolak utzia

## ARESO

# Urteagatik Altzairako pista berritu dute

Belarrak ontzeko lanak, eskola, ehiza

JUANA Mª SAIZAR

Urteagatik hasi eta Altzairaino doan pista *todouno* kapa batekin berritu dute, oso hondatua baitzegoen, ur-bideak direla eta. Ia ezinezkoa zen kotxez igotzea. 500 metroko zati batean ormigoia botatzea pentsatu zen, baina juxtu tramu horretan gasaren tuboak pasatu behar dute.

**Ehiza-postuen enkantea**

Ehiza postuen subastak aspaldidanik egin duen diru gehien egin du aurten, 2.700.000 pezeta.

**Egur-loteak**

Egur-loteak markatuta daude eta Udaletxetik pasatu beharko da lotearen zenbakia hartzeko.

**Udaletxeko zorrak**

Urriaren 30a baino lehen, Udaletxearekin dauden zorrak ordaindu beharko dira.

**Trikitixa ikastaroa**

Guraso elkarteak antolatutako trikitixa ikastaroa hasi da. Asteazken arratsaldetan izango dira klaseak.



### Bataioa

Laugarren bataioa izan zen Ainhoa Nietorena. Goxokiak eta dirua biltzen neska-mutikoak, ohiturak egintzen duen bezala.

## LEITZA

# Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea teknikari bila

Proposamenak Udaletxean aurkeztu daitezke

JOSEBA AZPIROZ

Sortu berria den Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Ultzamak osatzen dute), euskara teknikari lanpostu finko bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartu du. Parte hartzeko, EGA titulua edo baliokideren bat eta unibertsitateko erdi edo goi mailako titulazioa eduki behar dira, baita ibilgailua eta gidatzeko karneta ere. Teknikaria, Leitzaldeko (Leitza, Areso, Goizueta, Arano) Euskara Zerbitzuaz arduratuko da, beste eginkizunen artean. Eskabideak Leitzako Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, hilabeteko epean.



**Talde bakarra Karrape Irratiko esataria izateko**

Karrape Irratiko esatari zerbitzua kontzesio bidez hartzeko izena emateko epea bukatu denean, talde bat besterik ez da aurkeztu. Deialdian aipatzen ziren frogak gaindituz gero, ziur aski datorren astean emisioak hasiko dituzte. Azken hilabetetan, argazkian ageri diren IKA euskaltegikoak arduratu dira irratiaz.

Argazkia: Joseba

### Kontribuzioak

Udalak 27'2 milioi kobratuko ditu aurtengo kontribuzioengatik. Horrela, 25'1 milioi hiri kontribuzioarengatik kobratuko dira, 1'9 landa-kontribuzioarengatik eta 0'2 kanonengatik. Bestalde, Lizentzi Fiskala ordaintzen dutenei (autonomoak), lehen ez bezala, aurten kontribuzioaren ordain-agirian ez zaie kontzeptu hori kobratu. Arrazoia zera da: Nafarroako Gobernuak aurreko urtearen azkenaldian erregistro hau berritu zuela eta datuak ez dizkietela oraindik Udalei bidali. Horregatik aurten Lizentzi Fiskala beranduago kobratuko da eta beste ordain-agiri batez.

### Hirigintza Plana egiteko arkitektuak

Nolako herria nahi dugu? Nolakoa izanen da hemendik 10 edo 15 urtera? Eraiki behar al da etxe berririk? Non? Nolakoak? Eta industriarik? Hirigintza Plana aztertuko duen arkitektuen ekipoa aukeratzeko lehiaketa egin berria du Udalak. Aukeratutako taldeak, hirigintza plan bat proposatuz, aipatutako galderei eta beste askori erantzunen dio. Plan hau, 1999a bitarte aurkeztu, argitu eta eztabaidatuko dugu herritarrok, azkenean, plan kontsentsuatu bat onartu dezagun.

## flash

**Bake epailerako proposamena**

Bake epaile eta honen ordezkoa izateko, lehendik kargu horiek betetzen dituztenak proposatu zituen udalbatzak: Martin Mugika Astibia eta Joseba Azpiroz Elduaien.

**Gripearen txertoa**

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina urriaren 31n bukatuko da eta ez 3an, aurreko alean aipatu genuen bezala.

**Kontsumitzaile Bulegoa eta Nortasun Agiria**

Urrian, 17 eta 31n berritu ahal izanen da Nortasun Agiria herrian. Iratxe Kontsumitzaile Bulegoko langilea, bere aldetik, 14ean eta 18an etorriko da.

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN Tfnoa: 45 04 91

BEINTZAko OSTATUA
Afari-meriendak (enkarguz)
Musika... atsegina
Lurreko su goxoa!
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
22.000 irakurle


Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu.
Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305


## BAZTAN

# Baztan-Malerrekako Argazki-Rallya urriaren 19an burutuko da

### Oronozko Gaztelune elkarteak antolatua, 3. edizioa beteko du

JOSU INZIARTE

Oronozko Gaztelune elkarteak hirugarren urtez antolatutako Baztan-Malerrekako Argazki-Rallya burutuko da urriaren 19an. Izena emateko Zaldua eta Mena argazki dendetara joan daiteke, edo probaren egun berean Gaztelune elkartean, beti ere 1.000 pezeta utziz. Proba goizeko 8,30etan hasiko da eta antolatzaileek karreteak eta sei-zazpi gai emanen diete argazkilariei. Sariei dagokienez, lehenbizikoa 15.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 10.000koa eta 5.000koa hirugarrena.



**Erratzuko emakumeak Iratira**

Ez da geldirik egotekoa Erratzuko emakume talde hau. Joan den urtean Arrikulunkarat gan baziren, aurten, irailaren 9an Irati mendira joan ziren, egun pasa. Erran beharrik ez da, ederki pasatu zutela. Argazkia: Xabier Ospital

### Eskola tailerra Baztangoizan

Erratzu, Amaiur eta Azpilkuetako eskoletako haurrak, ortziralero Amaiurren bilduko dira, eskola tailerrak (musika, ipuinak, psikomotrizitatea...) egitera.

Bertzalde, Erratzuko Gorostapoloko bidea konpondu dute, saneamendua egin eta galtzada berrituz.

### San Migeleko Batzar Orokorrak errekista guti

Irailaren 29an, San Migel eguneko Batzar Orokorra burutu zen Balleko Etxean. Balleko alkate eta zinegotzietaz aparte, hamabortz herrietako alkateak eta lau junteroekin batera, herritar guziek parte har dezakete eta solasteko aukera dute. Halere, gero eta errekista gutiago du.

### Txalaparta ikastaroa

Baztango Gazte Asanbladak txalaparta ikastaroa antolatu du. Izen ematea urriaren 15ean egin beharko da, 7,30etatik aitzin 580714 telefonoan. Klasean larunbatetan izanen dira, Baztandarren Biltzarraren egoitzan.

Bertzalde, Gazte Asanbladak Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du. Izen ematea urriaren 12a baino lehen egin behar da Intza eta Pirrin ostatuetan, horretarako 1.000 pezeta utziz.

## flash

**Oihanberritzeak**
Astobizker inguruko 16,4 Hektarea eta Legargorri inguruko bertze 11,3 Hektarea oihanberritzeko eta mantentzeko lanak egiteko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Balleko Etxeak, datozen bortz urtetan eginen diren lan hauek, Fernando Arraztoari eman dizkio.

**Arraiozko**
Mikelorroa zubia auzolanean moldatuko da. Horretarako materiala, Balleko Etxeak jarriko du.

**ADACEN erakundearen aurkezpena**
Nafarroan Burmuingaitza duten eriak eta senideak biltzen dituen ADACEN erakundearen aurkezpena eginen da urriaren 23an, arratsaldeko 7etatik aitzinera Arizkunenea Kultur Etxean. Elkarte honetako, Baztan-Bidasoako delegatua Mª Jesus Irungarai da.

**Gripearen kontrako txerto**
kanpaina burutzen ari da herriz herri. Meningitiari dagokionez, guraso batzuk eman egin diote beraien seme-alabei.

**Nafarroako Odol-emaileen**
Egunera jende andana joan zen Martzillara Baztan, Urdazubi eta Zugarramurditik.

OSKORRI liburudenda
• Liburuak-prentsa-mapak-gidak
• Argazkilaritza materiala
• Papertegia-inprenta
© 592245 • Petrinea • ORONOZ-MUGAIRI



GAS SASKAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



SOULE
Hileta artea
Tfnoak:453444 • 908. 779903
ARIZKUN



JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

# BAZTAN

## Baztandarren I. Mus txapelketa antolatu du Baztandarren Biltzarrak

PABLO MENDIBURU

Baztandarren Biltzarrak antolaturik, Baztandarren I. Mus txapelketa jokatuko da ondoko hilabetetan. Herri bakoitzean, herritarren arteko txapelketa egin ondotik, txapeldunek, bere kuarteleko bertze herrietako txapeldunen kontra jokatuko dute.

Horrela, kuartel bakoitzetik bikote bana aterako da, eta, horien artean erdifinala eta finala jokatuko dute. Herrietako txapelketak, azaroan hasi eta abenduaren 13rako akituko beharko dute. Abenduaren 20an, txapeldunek kuartelkako kanporaketak izanen dituzte (Azpilkueta, Lekaroz, Gartzain eta Almandozen), eta, hortik aterako diren bikoteek, finala jokatuko dute Oronoz-Mugairin abenduaren 27an. Apuntatzeko epea, herri guztietan, urriaren erdialdetik azaroaren 5a artio luzatuko da, ohiko lekuetan. Finalaren egunean, aritutako muslarien afarie eta besta izanen da. Edonor animatzeko aitzaki ederra.



Asteburu honetan ikaragarrizko animazioa espero da Gartzaingo karriketan, Pilarika bestak ospatuko dira. Urteko azkenak, gogoratu!

# Gartzaingo bestak, urriaren 10etik 13ra

Pilarikaren ohorez ospatuko dira

**Ortzileria, urriak 10**
**6etan** suziriak eta ezkilak, bestei hasmenta emanez. **9etan** Baztan-zopak. **12etan** dantzaldia GOIURI taldearekin.

**Larunbata, urriak 11**
**11etan** mus txapelketa. **5etan** haurren jokuak eta ondotik, txokolatada. **8etan** dantzaldia GOIURI taldearekin. Ondotik, mutil-dantzak. **12,30etan** gaupasa GOIURI taldearekin.

**Igandea, urriak 12**
**Pilarika Egune**
**11etan** ezkilak eta txistua. **12etan** prozesioa eta Meza Nagusia, Ariztegi auzoan. **1etan** hameketakoa. **5etan** Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako baliagarria den proba. Arratsalde eta arratsean, dantzaldia GOIURI taldearekin. Tartean, mutil-dantzak.

**Astelehena, urriak 13**
**11etan** futbol partidua: ezkonduak, ezkongabeen kontra. Alkatea izanen da arbitro. **2etan** zikiro-jatea. Arratsaldez eta gauez dantzaldia Mikel SALABERRI akordeolariarekin. Goizaldera, Sorgin-afarie eta besten akabera.

## flash

**Ikasketa artistikoetarako hogeitabi beka** banatu ditu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak. Horietako bat, 1.100.522 pezetakoa, Arizkungo Kepa Landa Maritorenak jasoko du.

**Euskararen erabilera** neurtzeko karrika neurketak burutzen ari dira, Baztango Euskara Zerbitzuak antolatuta.

**Manifestaziorik ez**
HBko Mahai Nazionalaren epaiketaren aitzinean hainbat mobilizazio egiten ari dira. San Migel egunean manifestaldia egin behar zen Elizondon, baina ez zen hasterik ere izan, guardiazibilaren presentzia ikaragarria zela eta.

**Xorroxin kontzertua**
700 pertsona inguru bildu ziren Magali Zubillaga eta Benito Lertxundik eskainitako kontzertu bikaina aditzera. Bai jendea, baita kantariak ere, arras gustora itzuli ziren beraien etxeetara.

*Hamar urte baino gehiago zure zerbitzuan*

**Zergalan Asesoria, S.L.**

Akullegi, 3 - 2.A
✆ 580 335
ELIZONDO

**Ordutegia:** Astelehenetik Ortziralera, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.

- Auditoriak
- Zerga Aholkularitza
  - Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...
  - Elkarte gaineko Zerga
- Ekonomia Aholkularitza
  - Bideragarritasun ikerketak
  - Koste ikerketak
- Kontabilitateak
- Nominak, Aseguro Sozialak
- BEZ (IVA)

## BAZTAN

# Europako nekazariak Oronozen bildu ziren desintentsifikazioari buruz aritzeko

### EHNEk antolatutako jardunaldietan berrehun baserritar inguru izan ziren

TTIPI-TTAPA

Europako hainbat herrialdetatik eta Hego eta Ipar Euskal Herritik etorritako ehun baserritar baino gehiago bildu ziren Oronozko San Martin eskolan, EHNEk, Europako CPE sindikatuarekin batera antolatutako mintegian parte hartzera. Ignacio Martinez Alfaro, Nafarroako Gobernuko Nekazaritza kontseilaria era azaldu zen jardunaldietara eta nekazaritza munduan dabiltzan teknikoen artean ere izugarrizko arrakasta izan zuen mintegi honek eta ortziralean, ateak zabaldutako jardunaldia burutu zenean, 200 lagunetik goiti sartu ziren.



**Mahaiburutik emandako esplikazioei adi-adi egon ziren nekazariak**

Argazkia: Ardatza

Intentsifikazioa eta desintentsifikazioa izan zuten solasgai eta eztabaidagai eta helburu nagusi bezala, *«Europatik datorren kantitatezko produkzioaren ordez, baserri giroko kalitatezko produkzioa»* bultzatzea dela uste zuten bertan bildutakoek.

Jakina denez, Europatik nekazal politikaren erreforma bat planteatzen da, nekazal produktuen prezioak oraindik gehiago jautsiz eta laguntza zuzenak haunditu. Politika honek eragin zuzena izanen du behi-esnean, behi-haragian eta zerealetan eta, bistan denez, lehen bi sektoretako prezioen jautsiera eragin zuzena izanen du zonaldeko nekazariengan.

Mintegi honetan parte hartu zuen Mikel Petrirena, Nafarroako EHNEko arduradunaren ustez, Europako politika honek *«arra barnean darama, argi eta garbi intentsifikazioaren bidea bultzatzen baitu»*.

#### EUROPAKO NEKAZAL POLITIKAREN AITZINEAN DESINTENTSIFIKAZIOA DEFENDATU ZUTEN

Nekazal produktibitate honen ordez desintentsifikazioaren aldeko apostua egin zuten Oronozen bildutakoek, produkzio bolumen ttikiagoa, esplotazioen maneiu egokiagoa, gestioan autonomia haundiagoa eta orekatutako eta espezialdutako produkzioa bultzatuz.

Gisa honetako esperientziak Holandan edo Normandian eman dira eta bertako testigantzen berri ere eman zen San martin eskolan, alderdi teorikoari praktikoa ere gehituz.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

BAZTAN
FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

# SARA






Frantziako xapelketan Xitoak, aurtengo hoberenak izan dira. Ezkerraldean, Paterne eta Jauregi saratarrak, Mugerreko ordezkariekin batera. Eskuineko argazkian, besta asteazkenez, pilota partidari so, jendea oraino erne eta serios.

# Eskolarekin batera pilota ikastaroak ere hasi dira

## Xitoak mailan, saratarrak Frantziako azpixapeldun

MIXEL ETA JACQUELINE

Eskola sartzeekin batean, pilotak ere bere ikastaroa hastekotan du. Hara nola joanen diren sail ezberdientan, izen emaiteetarik hasiz:

**Esku huska:** Polikiroldegian asteazken arratsaldez, 6 urtetarik goitikoentzat.

**Pala antxa neskendako:** Polikiroldegian ortziraletan 6etarik lekura, 9 eta 13 urte artekoentzat.

**Joko Garbi:** huntaz Jean Mixel Jauregui arduratzen da eta berekin egon behar da.

### Xitoak bigarren

Bertzalde, agorrilaren 13an Donamartirin Frantziako finalakari eta Xitoak sailean, Jon Paterne eta Iñaki Jauregik 30 eta 8 galdu zuten, Milafranka-Lehuntze, Mugerreren kondu ari ziren pilotarien aurka.

Partida hau aintzin, pilotari beren aurka galdu zuten Euskal Herriko finala.

### Obrak zalantzan?

Plazaren moldatzeko ikerketak egin ondoan, Herriko Etxeak laguntzak eskatu ditu lanen hasteko. Gastu orokorrak 3.148.000 liberetara heltzen dira, zergaz kanpo.

Aurten 1.500.000 liberen lanak egin beharrak ziren, bainan hitzeman laguntzak ez ukanik, heldu den urterat luzatuak dira. Aurtengo lanetan barne ziren errebotearen inguruak, erran nahi baita horma eta zolaren tratatzea, jar-alki, horma mutur eta goiti doan bidearen antolatzea, landare batzuk gehitzea, jokoa iragaiten den gunearen argiztatzea eta oinezkoen gune baten egitea.

### Mus lehiaketak

Euskal Herriko 8. Egin Mus xapelketaren Sarako kanporaketak aurten ere Herriko Etxeko edantegian jokatuko dira urriaren 17an, arratseko 9ak eterdietatik goiti. Izenak eman behar dira oraindanik.




Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 58 06 45

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
Zaldubia Poligonoa • © 580562
IRURITA - BAZTAN
Sukalde eta Bainu Mobleak
Egoki-ren banatzaile baimendua
EGOKI

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Paulo Juanena Aldabe** eta **Irene Montserrat Frias Zaspe**, Oitz eta Iruñekoa, irailaren 13an.
**Javier Iturralde Etxeberria** eta **Miren Itxaso Arretxea Maritorena**, Zozaia eta Berroetakoa, irailaren20an.
**Pedro Javier Etulain Apeztegia** eta **Casimira Maiora Ballarena**, Iruña eta Elizondokoa, irailaren 20an.
**Michel Lesage** eta **Chantal Olano**, Sarakoak, buruilaren 20an.
**Francisco Javier Hernandez Rivero** eta **Idoia Mariezkurrena Fernandez**, Iruña eta Beintza-Labaiengoa, irailaren 27an.
**Miguel Ariztegi Huarte** eta **Mª Carmen Gainza Peña**, Lesaka eta Berakoa, irailaren 27an.
**Alfredo Saez Azkagorta** eta **Maria Solbes Ponte**, Irungoak, Beran, irailaren 27an.

## JAIOTZAK

**Saioa Mikelarena Mendiburu**, Legasakoa, irailaren 19an.
**Ander Legasa Rosa**, Lesakakoa, irailaren 13an.
**Josu Ursuegi Agirre**, Zigakoa, irailaren 22an.
**Ana Albistur Beunza**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 15ean.


**ZORIONAK!**
**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125


## HERIOTZAK

**Felipe Etxepeteleku Pikabea**, Lesakakoa, irailaren 25ean, 74 urte.
**Pedro Juan Perotxena Laurnagarai**, Elizondokoa, irailaren 19an, 84 urte.
**Emilia Micaela Etulain Etxenike**, Arizkungoa, irailaren 21ean, 92 urte.
**Miguel Torres Mendiburu**, Arizkungoa, irailaren 29an, 74 urte.
**Francisco Goienetxe Goñi**, Iturengoa, irailaren 23an, 60 urte.
**Antton Txapartegi**, Sarakoa, buruilaren 16an, 52 urte.
**Eulalia Aguilar Lopez**, Donamariakoa, irailaren 27an, 82 urte.
**Josetxo Larretxea Lazkano**, Arantzakoa, irailaren 23an, 42 urte.
**Raimundo Ezker Ezker**, Etxalarren, irailaren 16an, 86 urte.
**Angel Alzate Alzate**, Etxalarren, irailaren 18an, 53 urte.
**Nikolas Berrueta Pikabea**, Etxalarren, irailaren 21ean, 70 urte.



### Josetxo LARRETXEA LAZKANO

**Arantzan, 1997ko irailaren 23an hil zen, 42 urte zituenean**

*«Josetxo,*
*mendi tartean jaiotako*
*erreka ttiki bat bezala,*
*udazkeneko egun batean*
*erran diguzu agur.*
*Gazterik itsasoratu bazara ere,*
*elkarrekin bizitutako momentuak*
*beti gogoan edukiko ditugu»*

Arantzako Eskolako Guraso, ikasle eta irakasleak

### Francisca MATXIKOTE PERUGORRIA

**berriki hila**

Bere familiak, egun gogor hauetan hartu dituen doluminak bihotz-bihotzez eskertzen ditu lerro hauen bitartez. Mila esker guziei.

Igantzi, 1997-09-07


**ESKELAK**
**URTEMUGAK**
**ESKER ONAK**

**ttipi-ttapan**

✆ 63 11 88






**Bidali**
TTIPI-TTAPA
**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

✆ 631188

MUSIKA ESKOLAK

# Duela lau urte baino 100 ikasle gehiago matrikulatu da aurten

**Trikitixa, txistua edo gitarra bezalako instrumentuek gero eta arrakasta gehiago dute akordeoia eta pianoaren aldean**

Orain dela lau urte TTIPI-TTAPAk musika eskolei buruzko erreportaia egin zuen, eta zonaldeko 5 zentruetan 750 ikasle zenbatu genituen orduan, solfeo, instrumentu, armonia edo koralean matrikulatuta zeudenak. Aurtengo kurtso hasieran, datu hoiek gaurkotu eta 856 zenbatu ditugu, 106 ikasle gehiago, alegia. Bertzaldez, eskualdeko eskola guzien artean ia 90 milioi mugitzen dute urtean.

Leitzaldeko kasuan, Goizueta, Arano, Areso eta Leitzako 149 ikasleak Aralar Musika Eskolan matrikulatzen dira, Lekunberri, Betelu eta inguruko herrietako ikasleekin batera, nahiz eta klaseak euren herrietan bertan jaso. Irakasleak leku batetik bertzera mugitzen dira horretarako.

## Akordeoia eta pianoa beheiti

Aralar musika eskolakoen ahotik ikasi dugunez, piano eta akordeoian gero eta ikasle guttiagok ematen du izena, trikitixa edo gitarra bezalako instrumentuen faboretan. Hango adibidea begiratuz, pianoan 51 ikasle daude, gitarran 64 eta trikitixan 78. Urtetik urtera indartzen ari diren musika-tresnak dira azken bi hauek. Elizondo, Bera eta Lesakan, aldiz, pianoa eta akordeoia nagusi dira oraindik, bainan erran behar da zentru hoietan ez direla trikitixa klaseak ematen. Beran, ordea, gitarra eta txistu ikasleak nabarmen ugaritu dira azken boladan.

Gitarra, pianoa eta horrelakorik ez, bainan gaita eta txistua (solfeoa ere bai) Zazpiak Bat elkartean ikasten ahal dute saratar nahiz ingurukoek. Interesatuek 05-59542125 telefonora dei dezakete (Xano).

| BERA | |
|---|---|
| Irakasleak | 8 |
| Ikasleak | 152 |
| Aurrekontua | 23 milioi Pta. |
| Zuzendaria | Mari Jose BERGARA |

| ELIZONDO | |
|---|---|
| Irakasleak | 8 |
| Ikasleak | 110 |
| Aurrekontua | 13 milioi Pta. |
| Zuzendaria | Mari Carmen ANTOLIN |

| LEITZALDEA | |
|---|---|
| Irakasleak | 14 |
| Ikasleak | 340 |
| Aurrekontua | 30 milioi Pta. |
| Zuzendaria | Jose Javier IRIGOIEN |

| LESAKA | |
|---|---|
| Irakasleak | 8 |
| Ikasleak | 118 |
| Aurrekontua | 13 milioi Pta. |
| Zuzendaria | Salvador MADARIAGA |

| DONEZTEBE | |
|---|---|
| Irakasleak | 6 |
| Ikasleak | 136 |
| Aurrekontua | 10,7 milioi Pta. |
| Zuzendaria | Mikel RIPODAS |






## EGITARAUA

**Urriak 9an**

✗ **"Txepetxen teoriak hamar urte"**
Xamar.

**Urriak 14an**

✗ **"Bortzirietako gazteen euskararekiko jarrerak"**
Patri ARBURUA.

**Urriak 16an**

✗ **"Eskualdeko komunikabideak"**
Xorroxin Irratia eta Ttipi-Ttapa.

**Urriak 21ean**

✗ **"UEMA eta herri ttikien bizitasuna"**
Iñaki Arregi eta Jakoba Errekondo.

**Urriak 23an**

✗ **"Eskualdeko herri ekimena"**
*Mahaingurua*: Doike, EHE, Erausian, Langarra eta Zurkaitza taldeekin.
*Moderatzailea*: Marga ERDOZAIN.

**Urriak 28an**

✗ **"Turismoak euskarari zer? Euskarak turismoari zer?"**
Kike AMONARRIZ.

**Urriak 30ean**

✗ **"Bidasoako hizkerak eta euskara batua"**
Paxkual REKALDE.

**Azaroak 4an**

✗ **"Eskualdeko hizkuntz egoera orokorra eta horren gaineko gogoeta"**

## Berako futbolari gazteak, aitzineko postuen bila

Ongi ekin diote Gure Txokoako jubenilek hasi berria den denboraldiari, azkeneko zazpi urtetan bezalaxe Gipuzkoako Lehen Mailan. Hau idazterakoan hiru partidu jokatu dituzte, bi irabazi eta bertzea galduz. Joan den urteko bloke bera mantentzea da hasiera honen oinarria, Luis Irazoki entrenatzailearen ustez. *«Hamasei lagun joan den urtean ari ziren, bi haunditara pasatu dira eta gainerako lauak kadetetik sartu dira»*. Hiru urte daramazki Luisek jubenilak entrenatzen, baina aitzinetik Gure Txokoako kadeteak eta infantilak entrenatu ditu bina urtez. *«Orain dagoen jokalari taldearekin zortzi urte daramazki eta elkar ongi ezagutzen dugu»*.

Igotzea hagitz zaila bada ere –18 taldeko multzoan, lehena igoko da zuzenean eta bigarrenak promozioa jokatuko du– aitzin postuetan ibiltzea espero dute eta horretarako ilusio haundia omen dute jokalariek. Izan ere, azken urteotan beti erdialdetik goiti ibili dira Gure Txokoakoak.

Astero hiru entrenamendu izaten dituzte eta Luisek ez du kexarik. *« Ikasketak edo horrelakorik ez badute, gehienak etortzen dira»*. Etorkizunari dagokionez baikor ageri da entrenatzailea. *«Kadetetan badira jokalari onak. Datorren urtean izanen dugu arazoren bat, aurten zortzi adinez pasatuko baitira eta bertzeak egin artean»*.

### GURE TXOKOA (jubenilak)



| Jokalaria | Postua | Jaiotze E. | Herria |
|---|---|---|---|
| Manuel Gomez Mikelarena | Atezaina | 80-09-21 | Bera |
| Enaut Lazkano Etxeberria | Atezaina | 80-03-15 | Bera |
| Bernard Errandonea Etxeberria | Atzelaria | 79-03-04 | Bera |
| Jon Pikabea Goñi | Atzelaria | 80-05-07 | Bera |
| Iñigo Altzuguren Arnis | Atzelaria | 80-05-18 | Bera |
| Javier Garcia Errandonea | Atzelaria | 79-11-10 | Bera |
| Joseba Iriarte Retegi | Atzelaria | 81-03-19 | Bera |
| Felix Alzate Sarratea | Atzelaria | 81-11-03 | Bera |
| Juan Madera Arretxea | Atzelaria | 81-08-15 | Bera |
| Eduardo Etxebeste Iantzi | Atzelaria | 81-11-21 | Bera |
| Asier Larrañaga Alberdi | Erdilaria | 80-09-07 | Bera |
| Mikel Larretxea Errandonea | Erdilaria | 80-02-15 | Bera |
| Harkaitz Martinez Alvarez | Erdilaria | 79-05-18 | Oiartzun |
| Joseba Aranibar Almandoz | Erdilaria | 79-10-11 | Bera |
| Josu Irazoki Agirre | Erdilaria | 79-05-07 | Bera |
| Mikel Zelaieta Fagoaga | Erdilaria | 81-10-10 | Bera |
| Sergio Javalera Ubric | Erdilaria | 80-11-02 | Bera |
| Iñaki Irazoki Oharriz | Aurrelaria | 79-12-10 | Bera |
| Iñigo Lasaga Arburua | Aurrelaria | 81-11-14 | Bera |
| Juan Felipe Sanchez Larrañaga | Aurrelaria | 80-04-23 | Bera |
| Manuel Sanchez Larrañaga | Aurrelaria | 81-09-03 | Bera |
| Carlos Pombar Sainz | Aurrelaria | 81-09-13 | Bera |



**Luis IRAZOKI** *Entrenatzailea*

### «Denek jokatzea eta pixkanaka haundietara pasatzen joatea da helburua»

***Zein helburuarekin hasi duzue denboraldia?***

Ahalik eta goitien gelditzea, noski. Lau lehenbizikoen artean gelditzeko moduko taldea dugula iruditzen zait. Jokalari guziei jokatzeko aukera eman nahi diet eta pixkan-pixkan batzuk haundiekin aritzen eta martxa hartzen badute, ederki!

***Nola definituko zenuke taldea?***

Talde teknikoa dugu, baloia jokatzen duena, baina borrokatzeko karakter guttixko dute. Ez dira baloiari ostiko eman eta gibeletik ibiltzen direnak, baloia ukitu eta ukitu. Aspalditik elkar ezagunak dira eta blokean jokatzen dute. Oraindik liga hasi bertzerik ez da egin eta zaila da nota bat jartzea, baina blokea mantenduz gero nota altua izanen dugu.

#### Klubaren datuak

**Elkartearen izena:** Gure Txokoa
**Sorrera:** 1931
**Bazkideak:** 1.200
**Helbidea:** Iamotenea 31780 Bera
**Tel.:** 630314
**Aurrekontua:** 15 milioi pezeta inguru.
**Futbol zelaia:** Matzada (1992)
**Lehendakaria:** Bixente Goia
**Sekzioak:** Pilota, futbola (1. erregionala, neskak, jubenilak, kadeteak, infantilak, areto-futbola), dantzak, atletismoa, igeriketa, kultura, tenis, eskubaloia eta txirrindularitza.

#### Jubenilak

**Maila:** 1. Jubenila
**Iazko Sailkapena:** 7.
**Delegatua:** Iñaki Ganuza Sanchez

# Nafarroako Mendi Duatloi txapelketaren azken proba Pilarika Egunean Gartzainen

■ Bortz kilometro oinez, hamalau bizikletan eta bi terdi oinez eginen dituzte
■ Gartzaingo Kirol Taldeak antolatu du proba

Gartzain Kirol Taldeak igande honetarako, urriak 12, Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako baliagarria den hirugarren eta azken proba antolatu du, Balleko Etxearen eta Caja Pamplonaren laguntzarekin.

**PROBA HERRIKOIA**

Bertze urteetan bezala, ibilbidea 5 kilometro oinez eginez hasiko da. Gero, hamalau kilometro bizikletaren gainean egin beharko dituzte partehartzaileek, azkeneko bi terdiak, berriz ere, oinez egiteko. Proba, bertan parte hartu nahi duen edonorentzako zabalik egonen da. Izen ematea, irteera baino ordu erdi lehenago arte egiten ahal da edo zuzenean 580813 telefonora deituz. Hori bai, 700 pezeta ordaindu beharko dira.




Apirilean Elizondon burutu zen Duatloi probaren irudia. Pilarika Egunean ere, atleta andana espero da Gartzainen

Atletak lau kategorietan banatuko dira: gazteak, helduak, beteranoak eta emakumeak. Kategoria bakoitzeko hiru lehen sailkatueri sari bana emanen zaie eta partehartzaile guziendako kamiseta bat izanen da. Helmugaratzen den lehenak ordubete inguruko denbora egitea espero da eta kontrola, hiru ordu laurden beranduago itxiko da.

Elizondo eta Erratzuko probak burutu ondotik, Nafarroako Mendi Duatloi txapelketaren buruan Miguel Jose Ariztia dago, Eugenio Ondarra eta Iñaki Madozen aitzinetik.

## Euskal Herriko arpana eta kozkor biltze txapelketak eta Nafarroako herriz herri txapelketako finala jokatu ziren Uharten irailaren 21ean

**NHKF**

Irailaren 21ean ospatu ziren Uharte-Iruñean Euskal Herriko arpana eta kozkor biltze txapelketak.

Kozkor biltzaileei dagokionez, bi lerrotan paratutako 50 kozkor bildu behar zituzten eta Arabako Alberto Ibañez izan zen azkarrena, 6'23"ko denborarekin. Bigarrena Santi Azurmendi gipuzkoarra izan zen eta hirugarrena, Jaime Etxegarai beratarra. Narbarteko Mitxel Aginaga, bosgarrena izan zen.

Arpanlariek berriz, 60 ontzako enborrari 5 korte etzanda, 54 ontzakoari 6 korte zutik, 54 ontzakoari 6 korte etzanda eta 60 ontzakoari 5 korte etzanda eman behar zizkieten. Hemen ere arabarrak nagusitu ziren, Salbidea anaiak, hain zuzen. Gibeletik, bi bikote nafarrak sailkatu ziren, Arostegiko Kañamares anaiak eta Gerendiaingo Pikabea anaiak.

**Arraioz nagusi Hiru Kirol txapelketan**

Egun berean, Iruñeko Burgoen Plazan, Nafarroako 1. mailako Herriz herri txapelketako finalak jokatu ziren. Final horien barnean, espero bezala, Arraiozko taldea nagusitu zen bigarren konbinadan edo Hiru Kirol txapelketan. Aipatzekoa txingekin aritu zen Arraiozko ordezkariak, Patxi Larretxeak, jaso zuen txalo zaparrada luzea, 50 kiloko txingekin 18 plaza (504 metro) egin ondoren. Baztandarren ondotik, Ultzama eta Berriozar sailkatu ziren.

Proba konbinatuko bortz modalitateetako txapelketan, Berriozar gailendu zen, Ultzama eta Araitz Beteluren aitzinetik. Nesken artean ere ez zen ustegabekorik izan eta Etxauri Haranako taldea nagusitu zitzaion Lakuntzakoari.

**BOTE pronton**

**San Mateo Feria**
Asier Olaizola goizuetarrak, Imazekin bikote eginez, irabazi du Logroñoko San Mateo Feriako bigarren mailako txapelketa, finalean Barberito VI eta Balerdi 22-14 irabazi ondotik.

**Carlos Mancho**
Embalajes Clavijo taldeko txirrindulari jubenila nagusitu zen irailaren 27an Lesakan burututako Miguel Elizalde Memorialaren 27. edizioan. Basurde elkarteak antolatutako proba honetan 60 txirrindulari abiatu ziren eta 26 bertzerik ez ziren helmugaratu.

**Lesakako I. Paletagoma txapelketa**
Azaroan, Lesakako lehen kategoriako paleta-goma txapelketa hasiko da estreineko aldiz. Txapelketa hau Lesakako Batzoki elkarteak antolatu du Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz. Izena emateko epea –627522 (Julian) edo 627518 telefonoetan (Begoña)– urriaren 26an akautuko da eta bikote bakoitzak izena ematerakoan 3.000 pezeta ordaindu beharko du. Hogei lehenengo bikoteek hartuko dute parte.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### GARTZAIN

**Urriaren 11tik 14ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

**Urriaren 10etik 29 artio** Jose Mª Rezola margolariaren erakusketa ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean. Arratseko 7etatik 9etara. Igandean itxita.

## KONTZERTUAK

### ETXALAR

**Urriaren 11n** Stand By taldearekin kontzertua Herriko Ostatuan. Arratseko 10etan.

## MUS TXAPELKETAK

### BAZTAN

**Baztandarren I. Mus Txapelketa** jokatuko da ondoko hilabeteetan. Apuntatzeko epea urriaren erdialdetik azaroaren 5a artio, ohiko lekuetan.

### SARA

**Euskal Herriko 8.** Mus Xapelketaren Sarako kanporaketak Herriko Etxeko edantegian joakatuko dira urriaren 17an, arratseko 9,30etatik goiti.

## TXERTO KANPAINA

**Gripearen eta meningitiaren aurkako** txertaketa kanpaina egunotan burutzen ari da hainbat herritan. Informazioa Osasun Etxeetan eskatu.

## BASERRIA



### ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.500 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 212 pta/kilo
- **Zerramak:** 150 pta./kilo bizirik.



### BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 530 |
| 1.koa | 510 |
| 2.koa | 485 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 550 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 19.000 eta idixkoak 21.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 360 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**




## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Denok Tafallara*

Nafarroa Oinezek bigarren aldiz bisitatuko du Tafalla (86an, *Oinez edo Hegaz, beti euskaraz*), eta antolatzaileak jo ta fuego ari dira dagoenekoz urriaren 19ko eguna ahalbait hobekien prestatzen.

Jende guziendako moduko ekitaldiak izanen dira igande horretan; gazteendako kontzertuak, ekintza berexiak helduxeagoendako (lera txakur lehiaketa, ardo elaborazioaren erakustaldia, laia lasterketa...), eta umeek ere izanen dute non jostatu.

Hameka urte joan dira Nafarroa Oinez Tafallan izan zenetik; hogeitazazpi, berriz, hango ikastolak bere ibilbidea hasi zuenetik, eta denbora guzi horretan euskara eta euskal kultura poliki-poliki zabaldu egin dira Tafallaldean, pixko bat bada ere.

Orain indar berriak behar dituzte tafallarrek, *lan ta lan auzolan*ean idekitako bideari segida emateko, izan ere, biltzen dituzten irabaziekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezarriko baita.

Beraz, zainzurien eta ardo gorriaren lurraldean ikusiko dugu elkar.

## LIBURUAK




**«Bada hiri gorri bat»**
Asier SERRANO
KAIERO

Asier Serrano idazle gazteak bere lehen poema liburua argitaratu berria du, *Bada hiri gorri bat*. Bilduma honen aurkezpenean erraten den bezala, idazle baino gehiago *live-show*etako poeta da. Hainbat musika talderen abestiak hornituak ditu bere poemekin, bertzeak bertze, EH Sukarra eibartarren «Ura Sutan» diskoko hitzen egilea dugu. Agian horregatik, bere estraineko poema bilduman musikaren mundutik jasotako eragina nabari zaio.

Ez da errexa bere poesia ulertzen, paradoxaz beterik baitago. Gainera, irakurleak ez du olerkiak elkarren artean lotuko dituen haririk harrapatuko. Xabier Aldaik egiten du liburuaren aurkezpena, eta haren erranetan, Serranoren poesiak «bizitzak bere-berea duen konplexutasunaren imajina zehatza darama». (Argia)

JAKIN BEHARREKOAK

# Telebista bidez erosi? Ez, eskerrik asko.




Dendetakoak baino kalitate eskasagokoak eta garestiagoak dira urruneko salmentaren bidez eros daitezkeen produktuak.

Tabakoaren nikotina murrizteko aparatua, abdominalak lantzeko plantxa, erlojuak, bideoak…

Telebistak denetarik saltzeko aukera ematen du, are gehiago pertsonaia ezagunak edo modeloak erabiltzen badira, eta eskuarte hori aski ongi probexten dakitenak saltzaileak dira, *okasio bakarra* edota *deitu instantean* bezalakoak erabiliz,gauzak pentsatu gabe erostea lortzen baitute.

## Zer da egitan telesalmenta?

Izan ere, azken urteotan «televenta» delako hori nabarmen zabaldu egin da gure artean.

Telesalmenta urruneko salmenta bat da funtsean eta ezaugarri bereziak ditu; telebistaren bitartez egiten da eta dendetan ez dauden gauzak saltzen dira, normalki. Etxeetara bidaltzeko, gainera, bitartekariak erabiltzen dituzte beti (korreoa, garraio enpresak…).

Bulegora ailegatzen zaizkigun arrenkura ugariak ikusita, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartekook telesalmentari buruzko ikerketa bat egina dugu berriki.

**Ondorioak:**

Enpresek informazioa nahita izkutatu egiten dute. Ez erosi aitzinetik, ezta kontratua sinatzerakoan ere ez digute legeak agintzen duen eta guk beharrezkoak ditugun datuak ematen. Bertzeak bertze, produktuaren hainbat ezaugarri eta hura jaso ondorengo 7 egunetan kontratua bertan behera uzten ahal dugula ixiltzen dute. Fakturarik ez ematea ere gertatu izan da.

Bertzalde, erran dezakegu gauzak etxeratzeko epeak betetzen dituztela, baina dirua itzultzerakoan arazoak izanen ditugula aitzitik, denbora eta buelta aunitz eman behar baita hori lortzeko.

Aholku bezala, erraten ahal dugu gure eskubideak hobeki babesten ez diren bitartean ahalik eta guttienetan eta kontu haundiaz erabili beharreko erosketa mota dela telesalmenta.

*«Enpresek informazioa nahitaz izkutatu egiten dute».*

IRATXE Kontsumitzaileen Elkartea

## DISKAK




«Eguzki Berritan Zaude»
GARI
Elkar

*Eguzki berritan zaude* Mikel Lasaren poema baten izenburua da izatez, baina Garik bere disko berriari izena emateko erabili du eta poema horren hitzak ere abesti batean sartu ditu.

Bederatzi kantuz osatutako diska honetan Gariren estilo berezia urrundik sumatzen bada ere, berekin grabatu duen taldearen aipamena egitea nahitanahiezkoa da, eta zer erranik ez musika munduan aski ezagunak diren eta Garirekin kolaboratu duten hoietaz.

Hor daude, bertzeen artean, Josu Zabala (soinua), Roberto Mosso eta Karlos "Mahoma (ahotsak), Bingen Mendizabal (biolina, mandolina)…

Hitz gehienak maitasuna eta bakardadeari buruzkoak dira eta Jon Maiak idatzi ditu.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

### DUATLOIA

**GARTZAIN**

**Urriaren 12an** Nafarroako Mendi Duatloi Txapelketarako puntuagarria den azken proba ospatuko da. Arratsaldeko 5etan hasiko da, eta 580813 telefonora deitu daiteke izena emateko.

### TXISTE AFARIA

**BERA**

**Urriaren 11n**, larunbata, Orioko txiste kontalariekin. Arratseko 9,30etan.

### IKASTAROAK

**ETXALAR**

**Hainbat ikastaldi** eginen dituzte herrian, gimnasia eta sukaldaritzakoak Larraburuan eta eskulanena eskola zaharretan.

### DANTZAK

**DONEZTEBE**

**Euskal Dantzak** ikasteko aukera izanen da aurten ere. Interesatuek 450388 telefonora dei dezakete.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Urriaren 6tik 12ra** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

**Urriaren 13tik 19ra** Lesaka, Ituren, Iturralde, Goizueta.

**Urriaren 20tik 26ra** Bera, Narbarte, Lezaun, Urdazubi, Leitza, Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko 948-*
*Iparraldetik 00-34-48*

**631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Bainua eta sukalde mobleztatua. Eguzkitsua. ☎ 630508.

**BERA.** Pisua salgai, sukalde moldatua, jangela haundia, 3 logela, bainua eta aseoa. Dena kanpoaldera begira, balkoi ederrekin. ☎ 631305.

**BERA.** Pisua salgai. Eguzkitsua eta herri erdian. 70m². ☎ 989-801323.

**BERA.** Pisua salgai. ☎ 630392.

**IGANTZI.** Pisua salgai. ☎ 637818.

**ELIZONDO.** Pisua salgai Santiago karrikan. 3 logela, 2 komuna, sukalde mobleztatua, tximinia eta sabaia. ☎ 581179.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**Borda** bat erosi nahi dut. Berdin zait egoera eta herria. ☎ 451841.

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emanen nuke, moblerik gabe. ☎ 451661.

**LEITZA.** Asteburuak igarotzeko borda bat alokatuko genieke familiei. Leitzatik bertan eta ongi prestatua dago. ☎ 510321.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**IRUÑA.** Lagun bat behar dugu pisua osatzeko Bergamin kalean (Gurutze Pza ondoan. ☎ 450314 (Potto).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LEITZA.** Bajera salgai, Patxi Arrazolan. ☎ 510348.

**BERA.** 260m²ko bajera salgai. Eztegara 21. ☎ 630084.

**LEITZA.** Janari denda salgai, kooperatiban. ☎ 510167.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

**LESAKA.** Lur-azpiko bajera alokatzen da Albistur karrikan. ☎ 637948.

**BERA.** 8.500 m²ko lur eremua salgai. ☎ 630040.

**BERA.** 5.000 m²ko lur eremua salgai, eraikitzen ari diren bordarekin. Ibardingo bidean. ☎ 630288 (gauez).

**LESAKA.** Nabazen etxeak egiteko 4.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 637212.

## LOKAL KOMERTZIALAK

### 117 TRASPASOAK

**BERA.** Nafarroa denda (turistentzako Nafarroako produktu bereziak) traspasatzen da. Interesatuek, deitu ☎ 631151 edo 631199.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Emakume bat** etxez etxe masajeak emateko prest. Masajista diplomatua. ☎ 451687.

**Laguntza klaseak:** piano, tekladoak, solfeo, OHO, BBH, UBI. Esperientzi haundia. Zure etxera joan naiteke. ☎ 970-406651 (Utzi mezua) Garbiñe.

**Emakume bat** etxez etxe masajeak emateko prest. Masajista diplomatua. ☎ 451687.

**Lesakan** trikitixa, pandero eta kantu klaseak emanen nituzke. 'Aurrez aurre' ikasi nahi bada ere, aukera bada (Joseba Iparragirre). ☎ 637907 (Jone).

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**Sukaldeko mobleak** neurrian; enzimerak, elektragailu aldaketak,... sukalde osoen muntaia. ☎ 970-406651 Xabi.

**ARANTZA ZURGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**VW Golf** salgai. NA-X, 5 ate, zuria, lehen eskukoa, hagitz ongi zaindua, extrekin. ☎ 630044 (arratsetan).

**Citroen AX** salgai. NA-AH, 70.000 km eta lau urte. ☎ 630686.

**Honda NSR** salgai. Egoera arras onean. 125.000 pezeta. ☎ 635136 (eguerdi eta gauetan).

**Vespa** xahar bat erosiko nuke. Ez ontzat utzi baldin baduzu bakarren bat deitu, eguerdi-iluntzetan. ☎ 07-33-5-59-542123 (Sara).

**BERABI tailerrak**
✆ 631445 • BERA
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Peugeot 205 GTX
Land Rover
Nissan Primera 1.6 SLX NA-AL
Kotxe berrietan **ofertak**

**SAMPI ARAGON**
**Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta 4x4ak erosten dira. Gasolina eta diesel.**
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

**MENDAUR MOTOR**
✆ 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
- Opel Astra, Corsa Diesel
- Ford Fiesta / Kadett 1.8i
- Vitara Diesel / Kadett 1.6
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

**Trial motoa** salgai, Cota 310 markakoa eta egoera onean. ☎ 450606 (Joxe, gauetan).

**Yamaha RD 350** motoa salgai, karreterakoa. NA-Z. ☎ 627587.



**APARAN, S. A.**
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-eremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
**DONEZTEBE**

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Ardi txakurkumeak** salgai. ☎ 604624

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Kaldera-kalefaktore** mixtoa salgai (gasolina-egurra). 4.000 kilokaloria. ☎ 580898 (9etatik 2etara eta 4etatik 10etara).

**Motoko** kaskoa, kazadora eta galtzak salgai. Egoera onean. ☎ 631485.

**SAME** Corsaro 70 traktorea salgai, piñonezko "rotabator"arekin. ☎ 627587.

**Gasoil** depositoa salgai, 500 litrokoa. 15.000 pta. ☎ 637317 (arratsaldetan).

**Esnea** hozteko Alfa Laval tankea, 150 litrokoa, salgai. ☎ 635009.

**Tabernarako lau altaboz** Bosse markakoak eta Phoni etapa salgai. ☎ 510021.

**Egurrezko sukalde** kalefaktorea salgai. ☎ 450242.

Berako Jose Lanzek **bi behor karro** merke saldu-ko lituzke. ☎ 630084.


**ttipi-ttapa**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 631188






**UNO Txartela**
**Rural Kutxaren Visa berria**

**Rural Kutxan zu lehena izateko ari gara lanean: UNO**
- **UNO bezeroarekiko atentzioan.**
- **UNO zerbitzuaren kalitatean.**
- **UNO tratu pertsonalizatuan.**
- **UNO aholkuak emateko.**

**Horregatik aurkeztu nahi dizugu txarteletan berria den kontzeptua. Rural Kutxan zu bakarra zara.**

Betikoen abantailekin:
•Erosketak ordaintzeko milaka establezimenduetan.
•Epeka ordaintzeko, komeni zaizun moduan: Erosketa Sistema Pertsonalizatua (ESP).
•Esku-dirua ateratzeko kutxazain automatikoetan. Baita atzerrian ere.
•Garrantzia haundiko aseguruak dohainik aprobetxatzeko.

Eta hala nahi bazenu, abantaila bereziekin:
•Zure Visa Txartelak Chip-monedero ere izan dezakeelako.
•Zure argazkia sartzen ahal diozulako segurtasun haundiagorako.

NAFARROAKO RURAL KUTXA


**Gitarra salgai,** Hammer special markakoa. Gutti erabilia. ☎ 630317 (Joseba).

**Billar** amerikarreko mahaia salgai, primerako egoeran. 35.000 pta. ☎ 393115 (Jose Luis).

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Margatxo Matxiarena:** Zorionak Maria eta Mattinen partez, urriaren 17an 29 urte beteko dituelako.

**Elizondoko Zairari:** zorionak zure 11. urtebetetzean eta urte askotarako. Ia gonbidatzen gaituzun merendatzera. Zure izeba Pili.

**Juanito:** espero dugu, zahartzen ari zarela-eta, ez zarela aldatuko. Gu ongi gaudenez, ez dugu horrelako arazorik. Segi beti bezain majo eta parrandero. Pizti-basati-eroak.

**I.L. eta bere neskari:** Zorionak irailaren 23an, hiru urte elkarrekin egin zenutelako. Horrela segi eta beste asko gehiago bete dezazuela elkarrekin. Zuek dakizuen baten partez.

# ☞ URTEBETETZEAK

**Sail hau debaldekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Eli Lujanbio** goizutarrak 23 urte bete ditu irailaren 21ean. Zorionak Leitza eta Goizuetako lagunen partez.

**Kati Astibia** leitzarrak irailaren 14an 21 urte bete ditu. Zure koadrilaren partez, Zorionak.

**Maria Agirre Elizondo** beratarrak 14 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak familiaren partez.

**Iñigo Aldazabal** beratarrak 8 urte bete ditu urriaren 11n. Zorionak aita, ama, Naiara eta Mikelen partez.

**Maria Irigoien Matxiarenak** 4 urte beteko ditu urriaren 14an. Aita, ama eta Mattinen partez, zorionak.

**Miren Etxepeteleku** lesakarrak 2 urte bete zituen irailaren 6an. Zorionak gurasoen eta aitatxi amatxien partez.

**Juan Andres Azkarraga**ri zorionak, 22 urte bete dituelako. Azpilkuetakoen partez.

**Olatz Jorajuria Otxandorena** doneztebarrak 8 urte beteko ditu urriaren 15ean. Zorionak zure familiaren partez.

**Judit Inda Lizasoain** donamariarrak 8 urte beteko ditu urriaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.

**Zaira Latasa Oteiza** elizondarrak irailaren 29an 1 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



**Patxi Torres** beratarrak irailaren 26ean urteak bete ditu. Zorionak, aupa! 40 urtetik hurbilago zaude. Piliren partez.

**Gemma Mitxelena Agesta**k urriaren 23an beteko ditu 29 urte. Zorionak familiaren partetik.

**Izaro Telletxea Iturria** lesakarrak 9 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak familiaren partez.

**Patxi Arzuaga** urrotztarrak 2? urte bete zituen irailaren 11n. Zorionak eta segi beti bezain umoretsu. Leitzako lagunak.

**Eva Abajo Etxegarai** iruindarrak 22 urte bete ditu urriaren 9an. Zorionak Elizondoko familiaren partez.

**Itxaro Taberna** iruindarrak 10 urte bete ditu irailaren 21ean. Zorionak.

**Ibai Taberna** iruindarrak urriaren 3an 7 urte bete ditu. Zorionak.

**Ines Matxiarena** beratarrak urteak eginen ditu urriaren 7an. Zorionak zure familiaren partez.

**Antton Lazkanotegi** beratarrak urteak egin ditu irailaren 23an. Zorionak semea eta emaztearen partetik.

**Joseba Aranibar Almandoz** beratarrak 18 urte beteko ditu urriaren 11n. Zorionak familiaren partez.



**Jose Mª Erasun Elizalde** saldistarrak urte gutxi batzuk bete ditu urriaren 5ean. Zorionak familiaren partez.

**Asier Erasun Herrera**k 2 urte bete ditu urriaren 6an. Zorionak atautxi-amatxi eta gurasoen partetik.

**Amaia Telletxea Mendigutxia**k urriaren 7an 4 urte bete ditu. Zorionak bihotza.

**Ion eta Javier Etxebeste Zayas** lesakarrek urriaren 2an bete dituzte 4 urte. Zorionak Pello eta Ixabel anaiarreben partetik.

**Ainhoa Mugika** beratarrak 14 urte beteko ditu urriaren 10ean. Zorionak lagunen partez.

**Irene Matxiarena Aldalur**rek urriaren 20an 27 urte beteko ditu. Zorionak bere sanarra eta semearen partez.

**Arantxa Indakoetxea Perurena** goizuetarrak urriaren 19an 31 urte beteko ditu. Zorionak eta segi horrela. Familia.

**Jaione Martin** lekaroztarrak 23 urte bete ditu hilaren 4an. Lagunen partez, zorionak. Ongi pasau, asko ligau eta txanpainarekin kuidau!

**Mari Jose Del Moral Ariztegi** elizondarrak urteak beteko ditu urriaren 21ean. Zorionak Berako familiaren partez.



**Iker Telletxea Anzizar** lesakarrak 6 urte bete ditu urriaren 5ean. Zorionak gurasoen eta Aritzen partetik.

**Juan Loiarte Loiarte** goizuetarrak 7 urte beteko ditu urriaren 24an. Zorionak ama eta etxekoen partez. Muxu haundi bat.

**Garazi Sanz Arretxea** doneztebarrak 3 urte beteko ditu urriaren 20an. Guraso eta atautxi-amatxien partez, aunitz urtez.

**Alonso Antuña Perez** sunbildarrak 34 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak eta muxu haundi bat Alaba eta emaztea.

**Nerea Erbiti** leitzarrak 17 urte beteko ditu urriaren 14an. Zorionak zure familiaren partez.

**Jose Mari Sansiñena Inda** amaiurtarrak 15 urte beteko ditu urriaren 18an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.

**Eugenio Sansiñena Inda** amaiurtarrak 13 urte bete ditu urriaren 5ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partez..

Urriaren 30ean 16 urte beteko dituen Aurtizko **Ainhoa Baleztena**ri zorionak bere lagunen partez. Zorionak Heavy Tron!!

**Nerea Fagoaga Pajares**ek irailaren 26an 8 urte bete ditu. Zorionak garbantxo txikiari.

**Amaia Astiz Izeta** elizondarrak urriaren 5ean 3 urte bete ditu. Aunitz urtez guraso, Antton, eta familia guziaren partez.



**Naikari Larralde Juanena** lesakarrak 9 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak zure familiaren partez.

**Alberto Tolosa**k urriaren 20an urteak beteko ditu. Zorionak Irati eta Garaziren partez.

**Margatxo Matxiarena**ri zorionak bere iloba Mattin eta Mariaren partez, urriaren 17an 29 urte beteko dituelako.

**Julen Ariztegi Zozaia** doneztebarrak 12 urte beteko ditu urriaren 17an. Zorionak gurasoen eta Hodeiren partez.

Goizuetako eztirik ederrena den **Angel Loiarte**ri zorionak, bere urtebetetzean, urriak 22. Mamenen partez, bihotzetik bihotzera

**Txomin Sirera** igantziarrak 6 urte egin ditu urriarne 4an. Zorionak familiaren partez.

**Beñat San Miguel Galañena** arrasatearrak urriaren 5ean 7 urte bete ditu. Zorionak! Gurasoak, atautxi, amatxi eta Paula.

## OHARRA:

*Argazkia urtebetetze egunetik ahalik eta hurbilen ateratzeko, tenorez bidali behar diguzue guri. Ahal bada, urtebetetze eguna baino 20 egun lehenago.*

**ADOS**
*Julian Izura Nuin*
Telefonoak: 451841 • 908.77 86 53 • e-mail: julizu@zaros.com
Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



**Elizondo.** • Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai. 6.000.000.



**Etxalar.** • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



**Bera.** • Matxako ostatuaren gainean, bigarren pisua salgai, erabat berritua. Saltzeko premia haundia.

**Bera**n edo **Lesaka**n pisuak hartuko genituzke errentan, konfidantzazko lagunentzat, ongi ordaintzeko.



**Bera.** • Etxe berria salgai. 3.000 m². Suspela auzoan.



**Elgorriaga.** • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. Premiazkoa izateagatik, merke salduko dira.

**Etxeak egiteko lur erabilgarriak:**
- Mugaire: 500 m²
- Donamaria: 6.000 m²
- Doneztebe: 1.700 m²

**Belategiak:**
- Oitz: 10.000 m²



**Igantzi.** • Etxe adosatua salgai. Bi solairu, garagea eta baratzea.



**Donamaria.** • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.

**Errentan emateko pisuak:**
- Doneztebe
- Narbarten
- Legasan

**Bordak** erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



**Elgorriaga.** • Etxe honen 1. planta, bere bajerarekin salgai, arras polita.



**Igantzi.** • Lehenbiziko pisua salgai. Berri berria. 11.000.000.



**Sara.** • Etxe oso bat eta 1.500 m²ko lur eremua salgai.

**MUEBLES AMETS**
*mobleak orokorrean*

Bidasoa 45-60
Tfnoa: 948-630537
**BERA**









.esakako
ALTZURI
elektrogailu
lendan,
errate batera,
%5eko
DESKONTUA
zanen
luzu
elektrogailutan,
eta %20ko
DESKONTUA
materiale
elektrikoetan...

# TTIPI TXARTELArekin

## dirua eta gauza gehiago ere irabazten da




## DESKONTUAK

| | | |
|---|---|---|
| **AISIALDI AKTIBIDADEAK** | | |
| BKZ | Bertiz | %10 |
| **AUTO TALLERRAK** | | |
| MENDAUR MOTOR | Doneztebe | %10 Kubiertetan |
| SANPI ARAGON | Doneztebe | %10 Kubiertetan |
| PEDRO GARMENDIA | Elizondo | %20 Olio aldatzeak |
| DATUCELAY | Elizondo | %15 Bateria + amartiguadoreak |
| SANSIÑENA | Elizondo | %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak |
| LACOSTA | Irurita | %100 Pre-ITV |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| **AUTO-ESKOLAK** | | |
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |
| **ARGAZKI DENDAK** | | |
| GOIKO | Bera | %10 Errebelatze eta arg. materialak |
| AYLA | Bera | %10 makinetan izan ezik |
| MENA | Doneztebe/Elizondo | %10 |
| ZALDUA | Doneztebe/Elizondo | %10 |
| **ARROPA DENDAK** | | |
| EDURNE | Bera | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| SAIOA | Doneztebe | %10 |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza marka batzuetan ez |
| TXIRRISTA | Doneztebe | %10 |
| KAMAMILA | Doneztebe | %10 |
| PICABEA BOUTIQUE | Doneztebe | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 |
| COCOS | Elizondo | %10 |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| **EDARI BANATZAILEAK** | | |
| MANUEL TABERNA | Bera | %3 |
| **ELEKTROGAILU DENDAK** | | |
| MARIXUS | Lesaka | %20 Elektrogailuetan %30 Antenetan |
| ALTZURI | Lesaka | %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek. |
| RADIO BIDASOA | Bera | %10 Deskontu baleak |
| **ESTETIKA ZENTRUAK** | | |
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan %10 Oparietan |
| BEATRIZ | Elizondo | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| MARIAN | Lesaka | %10 |
| **KIROL DENDAK** | | |
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 |
| ZELA KIROLAK | Bera | %10 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %10 Kirol Artikuluetan |
| Mª LUZ SPORT | Bera | %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez. |
| **LENTZERIAK** | | |
| Mª CRUZ | Doneztebe | %10 (5.000 Ptatik. aurrera) |
| MAITE | Elizondo | %10 (5.000 Ptatik. aurrera) |
| DEÑE | Lesaka | %5 Kortseterian %10 Lentzerian |
| **LIBURUDENDAK** | | |
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas-materialak |
| LEGARRA | Lesaka | %10 Lib. + ikas-mater. (1.000 Pta.) |
| **MOBLEDENDAK** | | |
| AMAIUR ALTZARIAK | Doneztebe | %6 |
| LEIZA | Elizondo | %10 Sukalde mobletan |
| **OPTIKAK** | | |
| OSTARGI | Bera | %10 |
| **ZAPATADENDAK** | | |
| ALDI ROZAS | Bera | %10 |
| GOÑI | Elizondo | %10 (2.000 Ptatik. aurrera) |
| B. ALMANDOZ | Elizondo | %10 (3.000 Ptatik. aurrera) |
| NEREA | Doneztebe | %10 |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| **ZURGINAK** | | |
| ZIMELDI | Etxalar | %5 Sukalde eta armario enpot. |



..eta
.esakako
MARIAN
Estetika
Zentruan
%10eko
DESKONTUA
rtikulu
guzietan.
Eta horrela
ertze 45
comertzio eta

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK saltzen dituen txartelak erosiz, gauza aunitz lor ditzakezu: ttipi-ttapa lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin.**

**Informazio gehiago:**